

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Amorebieta-Etxanoko Udala

Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano

2009



AURKIBIDEA / ÍNDICE

I. SARRERA.....	5
II. IRITZIA.....	6
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	6
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia	7
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	9
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea	9
III.2 Sarrera fiskalak.....	9
III.3 Langileria.....	9
III.4 Diru-laguntzak.....	10
III.5 Kontratazioa.....	11
IV. FINANTZEN ANALISIA	13
V. URTEKO KONTUAK	18
V.1 Udala.....	18
V.2 Toki erakunde autonomoak.....	21
ALEGAZIOAK	25
I. INTRODUCCIÓN.....	51
II. OPINIÓN.....	52
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	52
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales	53
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	55
III.1 Presupuesto y contabilidad	55
III.2 Ingresos fiscales.....	55
III.3 Personal.....	55
III.4 Subvenciones	56
III.5 Contratación	57
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	60
V. CUENTAS ANUALES.....	65
V.1 Ayuntamiento	65
V.2 Organismos autónomos locales	68

ANEXOS 71

A.1	Naturaleza del ente fiscalizado y legislación que le resulta de aplicación	71
A.2	Presupuesto y sus modificaciones.....	72
A.3	Impuestos, tasas y otros ingresos	75
A.4	Ingresos por transferencias y subvenciones.....	76
A.5	Enajenación de inversiones reales.....	77
A.6	Gastos de personal	77
A.7	Transferencias y subvenciones corrientes concedidas	79
A.8	Inversiones reales.....	80
A.9	Deudores presupuestarios.....	81
A.10	Conciliación resultado presupuestario y patrimonial	82
A.11	Clasificación funcional del gasto	83
A.12	Análisis de contratación.....	84
A.13	Organismos autónomos locales.....	86
A.13.1	Ingresos por transferencias y subvenciones corrientes.....	86
A.13.2	Gastos de personal	86
A.13.3	Transferencias y subvenciones corrientes concedidas	87

ALEGACIONES 89

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 1a.
Vitoria-Gasteiz, 1 de diciembre de 2011.



I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (aurrerantzean HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraiki, Amorebieta-Etxanoko Udalaren eta bere Toki Erakunde Autonomoen 2009ko Kontu Orokorren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako atal hauek besarkatzen ditu: Udalaren egoeraren balantzea, galera-irabazien kontua eta memoria; baita udalaren eta bere Erakunde Autonomoaren aurrekontuen likidazioa ere.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.
- Bestelako alderdiak: "Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.

Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen gabeziak eta lege-hausteak antzekoak direnez gero, Txosten honetan azaleratu ditugun iritziak bateratuak dira.

Amorebieta-Etxanoko udalak 17.842 biztanle ditu 2009ko urtarrilaren 1eko erroldaren arabera eta bertako egiturari, Udalaz gain, Kirol Herri Erakundea eta Ametx Kultura eta Euskara Zerbitzuetarako Erakunde Autonomia barne hartzen ditu.



II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

LANGILERIA

1. Ametx Kultura eta Euskara Zerbitzuetarako Erakunde Autonomoko aldi baterako langile bat, 2009ko abenduaren 31n kontratua indarrean zuena, hasiera batean 2008an Eusko Jaurlaritzako enplegu programak oinarri hartuta kontratatu zuten eta gerora, obra edo zerbitzu jakina egiteko, inongo hautaketa-prozesurik baliatu gabe.

KONTRATAZIOA

2. Larrea kiroldegiko 1. fasearen eraikuntza xede zuen obren kontratua 2007an esleitu zen 5.696 mila euroren zenbatekoan (7 zk.ko esp.); 2009an, ordea, alde bien adostasunez indargabetu zen 2.242 mila euroko obra gauzatu ondoren. Kopuru honetatik 1.064 mila euro obra unitate zaharrak beste berri batzuekin ordezkatzeko dira; alabaina, ez hauek ez prezioak ez dituzte aldez aurretik osotasunean onartu harik eta 2008ko abenduaren 18ko Tokiko Gobernu Batzarraren Erabaki bidez baimendu arte; honek Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren (aurrerantzean, APKLTB) 101 eta 146 artikulua urratzen ditu. Gerora, obraren exekuzioari jarraipena eman zioten baina beste espediente bat esleituta (8 zk.ko esp.).
3. Etxez etxeko laguntza zerbitzua ematea xede zuen espedientea (4 zk.ko esp.) 2006ko urtean esleitu zen bi urte luzagarritarako eta gehienera 308 mila euroko aurrekontuarekin. Espedientearen exekuzioan zehar emandako zerbitzu bakoitzeko fakturatzen da eta honenbestez, 2009ko ekitaldian zehar luzapen aldiaren exekutututako zenbatekoak (742 mila euro) bikoiztu egiten du gehieneko aurrekontua; hau kontratua aldatu gabe edo beste lehiaketa bat izapidetu gabe gauzatu da eta desitxuratu egiten du lizitazioa.
4. Zabor bilketa eta kale garbiketa zerbitzuen kudeaketa (6 zk.ko esp.) 2000ko urtean esleitu zen 770 mila euroren zenbatekoan; berebat, 3. adineko zentroaren eta zaharren egoitzaren kudeaketa eta urritu psikiko eta fisikoen zentroa kudeatzea xede duten beste bi kontratu 2005eko urtean esleitu ziren; hiru kontratu hauek guztiek 2008ko ekitaldian agortu zuten indarraldia eta honenbestez, esleipena publizitate eta lehia printzipioei meneratutako prozesu berrien bitartez lehiatu behar zatekeen. Zerbitzu hauen kostua 2009an 1.474 (ikus A.11) eta 309 eta 366 mila eurokoa izan zen, hurrenez hurren. Kontratu hauek guztiak 2009 eta 2010ean esleitu dira.

Epaitegi honen iritzira, aurreko idatz-zatietan aipatutako lege haustek alde batera, Amorebieta-Etxanoko Udalak eta bere Erakunde Autonomoek zuzentasunez bete dute 2009ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.



II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Udalaren 2009ko ekitaldiko aurrekontu likidazioaren sarreraren 4. kapituluak itunpeko zergetan parte-hartzeagatik kitatutako eskubideak (Udalkutxa) barne hartzen ditu; eskubide horiek 9.784 mila eurokoak dira eta 2009ko ekitaldiaren azken kitapenaren kontura egindako emakidei eta 2008ko ekitaldiaren kitapen negatiboari dagozkio; hor jasotzeko dago 2009ko ekitaldiaren kitapen negatiboa, 2.342 mila eurokoa. Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseiluak 2010eko otsailaren 19an erabakitakoari jarraiki, kopuru horren itzulera hilero egingo da 2011ko urtarriletik 2013ko abendura arte, Udalkutxaren konturako dagozkion emakidekin berdinkatuz.

1. Udalak bere jabetzako ondasun eta eskubideen zerrenda dauka, Udalbatzak 2000ko abenduaren 29an onartutakoa; nahiz Udalak urteetan zehar egin diren mugimenduak erregistratu dituen ezin zehaztu izan dugu horiek egiteko orduan baliatu dituzten balorazio irizpideak. Gainera, Udalak ez du kontabilitatean zuzkitzen balantzean 25.676 mila euroko balioa duten ondasunei dagokien amortizazioa. Inguruabar hauen ondorioz, ezin zehaztu izan dugu Ibilgetuak egoki islatzen duen Udalaren jabetzakoak diren ondasunen kostua eta balio-galera.
2. Hona hemen 2009ko abenduaren 31n Amorebieta-Etxanoko Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen gastu orokorretarako Diruzaintza Geldikinak, data horretan itxitako Egoera Balantzeak eta Funts Propioak eragiten dituzten doiketak:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan

KONTZEPTUA	_AURREKONTUKOA_		_ONDAREKOA_	
	DIRUZAINZA		FUNTS	
	GELDIKINA	AKTIBOA	PASIBOA	PROPIOAK
UDALA				
09.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko eskubideak				
A.3 Ur, zabor eta saneamendu tasak, 2009ko 4. hiruhil.....	592	592	-	592
A.4 Toki Inberts. Estatuko Fondotik jasotako diru-lag. erag. sarr.	112	112	-	112
Asoziat. finantzak. desbider. positiboa	(87)			
Udalkutxaren likidazioa, 2009ko ekita.....	-	-	2.342	(2.342)
A.5 Hirigintzako aprobetxamendua.....	162	162	-	162
Musika eskola finantzatzeko diru-lag.....	65	65	-	65
09.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko obligazioak				
2. kapituluko gastuak, zorpetu eta erregistratu gabeak	(307)	-	307	(307)
A.8 6. kapituluko gastuak, zorpetu eta erregistratu gabeak	(1.481)	1.481	1.481	-
UDALA GUZTIRA	(944)	2.412	4.130	(1.718)
KULTUR ZERBITZUAK ETA AMETX EUSKARA E.A.				
09.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko eskubideak				
EJ diru-lag. 2008-09 ikasturt. musika eskolei	157	157	-	157
09.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko obligazioak				
2. kapituluko gastuak, zorpetu eta erregistratu gabeak	(14)	-	14	(14)
AMETX E.A. GUZTIRA	143	157	14	143
KIROLAREN FUNDAZIO PUBLIKOA ERAK. AUT.				
09.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko obligazioak				
2. kapituluko gastuak, zorpetu eta erregistratu gabeak	(15)	-	15	(15)
KIROLAREN E. A. GUZTIRA	(15)	-	15	(15)

Epaitegi honen iritzira, aurreko 1. eta 2. idatz-zatietan azaleratutako salbuespenak alde batera, Amorebieta-Etxanoko Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen Kontu Orokorrek alderdi esanguratsu guztietan 2009ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, ondarearen eta 2009ko abenduaren 31ko finantza egoeraren isla leiala eta ekitaldian eragiketen emaitzak erakusten dituzte.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jaso dira bai ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioen betetzea nabarmen eragiten ez duten hutsak, bai prozedurazko alderdiak ere, kudeaketa hobetzeko azaleratu ditugunak.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- Kontularitzan erregistratzeari dagokionez, hona hemen azaleratu diren hutsak:
 - Udalak 2009ko ekitaldian langileria gastu handi modura 46 mila euro erregistratu ditu; horiek INEMi egindako itzulketei dagozkie, 2008ko enplegu programen kontzeptuan eskuratutako diru-laguntzen soberakinen ondorioz; ordea, duten izaera aintzat hartuta, sarreren 4. kapitulua murriztuta erregistratu behar lirateke.
 - Udalak 2009an 124 mila euroko diru-laguntzak eman ditu aurrealde eta estalkiak birgaitu, konpondu eta berritzeko, traba arkitektonikoak kentzeko eta igogailuak instalatzeko; horiek guztiak “Transferentzia arruntak” gastuen 4. kapituluan erregistratu dira, baina izaerari erreparatuz gero, “Kapital transferentziak” 7. kapituluan erregistratu behar ziratekeen.
 - Udalak 2009ko abenduaren 31ko egoera balantzearen “Diruzaintza” idazpuruan, 2.000 mila euroko zenbatekoa du erregistratua, epe laburrerako ezarpenetan jarritako diruzaintzako soberakinei dagokiena; horiek, ordea, “Aldi baterako inbertsio finantzarioak” idazpuruan erregistratu behar lirateke.
 - Kirolaren Fundazio Publikoa Erakunde Autonomoak 100 mila euroko diru-laguntza eman zion kirol erakunde bati pabiloi bat erosteko; kopuru hori “Transferentzia arruntak” gastuen 4. kapituluan erregistratu da; ordea, izaeraren arabera, “kapital transferentziak” 7. kapituluan erregistratu behar ziratekeen.

III.2 SARRERA FISKALAK

- 2009ko urtean zatikapen espedientea bideratu zitzaion zordun bati, zatikatutako zerga-zorra 54 mila euroko printzipalekoa zuena; ordea, Udalaren kudeaketa, diru-bilketa eta ikuskaritzaren udal aginduaren 12.7 artikuluan ezarritako kopurua gainditu arren, ez zaio bermea eratzeko eskatu, ez eta hori aurkeztetik salbuetsi ere.

III.3 LANGILERIA

- Udalak ez ditu Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO) argitaratu alkatearen eta zinegotzi baten ordainsariak eta dedikazio eskusiboa aitortzen zituzten udalbatzaren erabakiak; ez eta zinegotzientzat asistentziagatik kopuruak eta kalte-ordainak ere; honek Toki Araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.5 artikulua urratzen du (aurrerantzean, TAOL).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Udalaren eta Kirol Herri Erakunde eta Ametx Kultura eta Euskara Zerbitzuetarako Erakunde Autonomoaren 2009ko ekitaldiko aurrekontu plantillek ez dituzte berariazko osagarriari dagozkion kreditu zuzkidurak barne hartzen, EFPLren 21. artikulua agintzen duen legez; alabaina, eskala eta azpi-eskala bakoitzeko jaso beharreko ordainsari guztiak barne hartzen dituzte.
- Ametx Kultura eta Euskara Zerbitzuetarako Erakunde Autonomoak ez du gauzatutako egintzen nahikoa euskarri edo ebidentziarik uzten, bitarteko funtzionarioen izendapen eta aldi baterako kontratazioetarako lan poltsak zuzen kudeatu direla egiaztatzea bideratuko dutenak.
- Ametx Kultura eta Euskara Zerbitzuetarako Erakunde Autonomoaren LZk barne hartzen dituen hiru postutan ez da zehaztu ez dedikazio erregimena, lanpostua betetzeko eskatzen diren baldintzak, betetzeko sistema, ez eta esleitutako berariazko osagarria ere; horrek EFPLren 15. artikulua urratzen du.
- Ametx Kultura eta Euskara Zerbitzuetarako Erakunde Autonomoak iraupen mugatuko lan kontratu bat du indarrean, 2001ean gauzatutakoa. Funtzio publikoaren arategiak (uztailaren 6ko 6/1989 Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 23. artikulua) agintzen du langileen etengabeko beharizanek Lanpostuen Zerrendan (LZ) islatu behar direla, gerora dagozkion enplegu publikoaren eskaintza deitzeko.
- Udalak 2006an gauzatutako iraupen mugatuko laneko hiru kontratu ditu abian; kontratu horiek INEMera eskaintzak eskatu ondoren eratutako laneko poltsetatik eratorritakoak dira. Lanpostu Zerrendan plaza hutsak daudenez gero eta plaza horiek 2007 eta 2008ko EPEn barne hartu direnez gero, plaza horiek behin-betiko hautaketa prozesu baten bitartez betetzeko deitzea gomendatzen dugu.
- Udalak eta Ametx Kultura eta Euskara Zerbitzuetarako Erakunde Autonomoak bitarteko bi funtzionarioen hautaketa gauzatu dute; horretarako, INEMi lan-eskaintzak eskatu zaizkio eta hautaketa prozesuak gauzatu dira. Gure iritzira, prozesu hauei eman zitzaizen publikitateak zabalagoa behar zukeen izan eta prentsan edo aldizkari ofizialetan argitaratu deialdia.
- Ametx Kultura eta Euskara Zerbitzuetarako Erakunde Autonomoak 2001eko urteaz geroztik iraupen mugatuko aldi bateko kontratua (irakasle) eta 1998ko urteaz geroztik bitarteko lan kontratua ditu indarrean. Lanpostu Zerrendan bi plaza huts daudenez gero eta plaza horietako bat (irakasle) 2008ko EPEn barne hartu direnez gero, plaza horiek behin-betiko hautaketa prozesu baten bitartez betetzeko deitzea gomendatzen dugu.

III.4 DIRU-LAGUNTZAK

- Ametx Kultura eta Euskara Zerbitzuetarako Erakunde Autonomoak Kultura eta Hezkuntza Saitetan, hurrenez hurren, 55 eta 112 mila euroren zenbatekoan elkarlehiaren prozedura erabilita emandako diru-laguntzetan, horiek emateko ezarritako irizpideetako batzuk ez dira objektiboak, nahiz diru-laguntzak ematen zaizkien eskatzaile guztiei. Gainera, Hezkuntzaren atalean emandako diru-laguntzei dagokienez, ez da deialdiaren



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

oinarri-arau orokorretan ezarritako prozedura bete, ez baitago aurkeztutako eskabideak ebaluatuko dituen kide anitzeko organoaren txostenik.

- Kirol Herri Erakunde Autonomoak hitzarmen bat izenpetu zuen kirol elkarte batekin pabiloi bat erosteko, 100 mila euroren zenbatekoan; ordea, hitzarmenean ez da zehazten diru-laguntzak zuen xede jakinerako ondasuna gehienez zenbateko epean erabiliko den; berebat, eskritura publikoan ez da erasota uzten hitzarmenean jaso dagoen destinoaren erreserba, guztiak ere azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorraren 31.4 a) artikuluan eskatutakoak. Halaber, ez dago ondasunaren alde aurreko tasaziorik, aipatutako Legearen 30.5 artikulua agintzen duen moduan.

III.5 KONTRATAZIOA

Udalaren kontratazio administratiboa aztertu dugu eta iritzia atalean aipatu ditugun ez betetzeak alde batera, honako alderdi hauek bereizi behar ditugu (ikus A.12):

- **Administrazio klausula partikularren pleguak**

Guztira 23.345 mila euroren zenbatekoarekin esleitutako hamabi kontraturen pleguek (2, 3, 5, 7, 8, 10etik 16ra bitarteko esp.) eskaintza merkeenak zigortzen dituzten formula aritmetikoak barne hartzen dituzte.

Guztira 24.541 mila euroan esleitutako hamabost kontraturi dagozkien pleguek (1etik 8ra eta 10etik 16ra bitarteko esp.), besteak beste, lehiatzaileen esperientzian eta/edo kaudimenean oinarritutako irizpideak barne hartzen dituzte eta ez eskaintzaren ezaugarri teknikoetan oinarritutakoak, APKLTBren 15. artikulua eta hurrengoek edo Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen (aurrerantzean SPKL) 65. artikulua eta hurrengoek agintzen duten moduan.

Zerbitzu kontratu batean (3 zk.ko esp.), 96 mila euroren zenbatekoarekin esleitutakoan, pleguek formuletan edo prezioen berrikusketari ezargarriak zaizkion indizeetan eskulanaren kostua barne hartzen dute eta horrek urratu egiten du SPKLren 79. artikulua agintzen duena.

Guztira 4.901 mila euroren zenbatekoan esleitutako kontratu baten pleguek xede eta kategoriari dagokionez eskatzen duten sailkapena ez da behar hainbatekoa; horrek urratu egiten du Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren (aurrerantzean KLEO) 25, 26 eta 36. artikuluetan adierazitakoarekin (8 zk.ko esp.).

- **Esleipena**

Guztira 24.559 mila euroren zenbatekoan esleitutako hamalau espedientetan, aurkeztutako eskaintzak balioztatzen dituen txosten teknikoak pleguan irizpide eta azpi-irizpide bakoitzari emandako puntuazioak zehazten ditu, baina ez ditu emandako puntuazio horiek justifikatzen (2. Eta 4tik 16ra bitarteko esp.).

2009an publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez 232 mila euroren zenbatekoan esleitutako espediente batean (9 zk.ko esp.), ez dira pleguetan zehaztu negoziatu



beharreko alderdiak eta ez da jaso negoziazio horren emaitza espedientean esleipena gauzatzeko unean.

Guztira 1.078 mila euroren zenbatekoan esleitutako bi espedientetan (4 eta 6. esp.) ez dago erasota esleipen hartzaile den enpresak giza eta zerga obligazioak bete dituela eta horrek KLEOren 13. artikulua eta hurrengoak urratzen ditu.

Guztira 11.778 mila euroren zenbatekoan esleitutako zortzi kontratutan, esleipen irizpideen balorazioa ez zaio SPKLren 134. artikuluan adierazitako prozedurari egokitzen; izan ere, bertan esaten da eskaintzak zenbagarri diren irizpideen arabera formulak aplikatze hutsarekin ebaluatzea egingo dela aurretik ezaugarri hau ez duten bestelako irizpideak ezarri ondoren, eta horren berri dokumentuzko oinarri bidez utziko dela (1, 2, 10, 11, 13tik 16ra bitarteko esp.).

Aurreko urteetan 1.078 mila euroan esleitutako bi kontratutan, ez da esleipena BAOan argitaratu eta horrek APKLTBren 93.2 artikulua urratzen du (4. eta 6. espedienteak).

- Exekuzioa eta harrera

Guztira 3.161 mila euroan esleitutako bi kontratutan, aldaketetatik eratorritako obren exekuzioak esleipen prezioaren % 20 gainditzen du (% 25 eta % 26); aldaketa horrek ebazpena egitea eskatzen du (10 eta 14 zk.ko esp.).

2.660 mila euroren zenbatekoan esleitutako obra kontratu batean (16 zk.ko esp.) prestalaren kontzeptuan hainbat diru-kopuru ordaindu dira abalik aurkeztu gabe; horrek urratu egiten du APKLren Erregelamendu Orokorraren 157. artikulua agintzen duena.

Guztira 409 mila euroren zenbatekoan esleitutako bi kontratutan (9 eta 12 zk.ko esp.) obraren harrera atzerapenez egiten da aurreikusitako amaiera epearekiko, epe luzaketerik batere onartu gabe (SPKLren 197. artikulua).

Etxez etxeko laguntza zerbitzua ematea xede duen espedientean (4 zk.), 2006an 308 mila euroko gehiengo aurrekontuarekin esleitu zena, luzapenak atzerapenez onartu dira.

Guztira 369 mila euroren zenbatekoan esleitutako kontratu batean (2 zk.ko esp.) esleitutako zenbatekoa gainditzen duten zerbitzuak fakturatzen dira (% 10), dagokion aldaketa ez izapidetu, ez onartu ez dela. Beste bi espedientetan, berriz, 1.516 mila eurokoan esleitutakoetan (6 eta 13 zk.ko esp.) ez dira egoki justifikatu aldaketaren arrazoiak.

- Erosketa txikien analisisa

Erosketa txiki modura izapidetutako erosketak aztertu ditugu eta ikusi dugu 131 mila euroan gauzaturako hiru erosketa publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez izapidetu behar ziratekeela, bai kopuruagatik, bai data beretan eta hornitzaile berarekin hornigai berdinak edo antzekoak erosi zirelako (ikus A.12).

Amorebieta-Etxanoko Udalaren Erakunde Autonomoek kontratazio espedienteak kontratugilearen profilean soilik argitaratzen dituzte eta ez aldizkari ofizialetan 100 mila eurotik gorako espedienteak direnean; horrek SPKLren 138. artikulua urratzen du.



IV. FINANTZEN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua. Konparazio ondorioetarako, 10.001 eta 20.000 biztanle bitarteko (geruza honetan baitago udala) Bizkaiko eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) udalen batez bestekoen 2007ko ekitaldiari buruzko datuak barne hartu dira (eskuragarri dauden azken datuak).

FINANTZEN ANALISIA	Milako eurotan			Euroak biztanleko				
	Urtea			Urtea			Erref.	
	07(*)	08(*)	09	07	08	09	Bizk	EAE
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	11.151	12.629	11.228	641	716	629	458	487
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	11.839	13.459	11.681	680	764	655	712	703
Ondare sarrerak (5. kap.).....	516	683	334	30	39	19	18	34
A. Diru-sarrera arruntak	23.506	26.771	23.243	1.351	1.519	1.303	1.188	1.224
Langileria gastuak (1. kap.).....	4.775	5.848	5.280	274	332	296	313	346
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.).....	7.271	8.492	9.630	418	482	540	382	409
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	5.358	5.278	5.523	308	299	310	207	172
B. Funtzionamendu gastuak	17.404	19.618	20.433	1.000	1.113	1.146	902	927
Aurrezki gordina (A-B)	6.102	7.153	2.810	351	406	157	286	297
- Finantza gastuak (3. kap.).....	-	-	-	-	-	-	4	9
Emaitza arrunta	6.102	7.153	2.810	351	406	157	282	288
- Maileguren amortizazioa (9. kap.).....	-	-	-	-	-	-	11	28
Aurrezki garbia	6.102	7.153	2.810	351	406	157	271	260
Inbertsio errealeen besterentzea (6. kap.).....	2.015	1.928	450	116	109	25	161	134
Jasotako kapital diru-laguntzak (7. kap.).....	771	245	3.768	44	14	211	104	102
- Inbertsio errealak (6. kap.).....	4.955	10.223	15.167	285	580	850	411	369
- Emandako kapital diru-laguntzak (7. kap.).....	306	50	147	18	3	8	14	56
Kapitalezko eragiketaren emaitza.....	(2.475)	(8.100)	(11.096)	(143)	(460)	(622)	(160)	(189)
Eragiketa ez finantzarioen emaitza (1etik 7rako kap.)	3.627	(947)	(8.286)	208	(54)	(465)	122	99
Diruzaintzako geldikina.....	13.871	11.263	4.030	797	639	226	492	496
12.31n zorpetzea	-	-	-	-	-	-	86	267

(*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

Iturria: Toki Erakundearen Kontuei buruzko HKEEren 2007ko behin-betiko txostena. "Bizk." erreferentzia, 10.001 eta 20.000 biztanle bitartean dituzten Bizkaiko udalen datuei dagozkie. "EAE" erreferentzia, 10.001 eta 20.000 biztanle bitartean dituzten EAEko udalen datuei dagozkie.



Sarrera arruntak: 2008an % 14 egin dute gora eta % 13, 2009an, aurreko ekitaldietako bakoitzarekiko. Aldakuntza nagusiak honako hauek izan dira:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak:** Sarrera hauek % 13 egin dute gora 2008an eta % 11 murriztu dira 2009an. Hona hemen aldakuntza nagusiak:
 - Zerga zuzenek eragindako diru-sarrerak % 9 gehitu ziren 2009ko urtean, Ondasun Higiezinaren Zergak (OHZ) eragindako sarreraren ondorioz, batik bat; honela, bada, 2008an 2.305 mila eurokoak izatetik, 2009an 2.693 mila eurokoak izatera aldatu ziren. Diru-sarrera horren zati bat zerga horren oinarriak izandako % 2ko igoerari dagokio.
 - Eraikuntza, Instalakuntza eta Obren gaineko Zergak eragindako sarrerak ekitaldi bakoitzean onesten diren eraikuntza-proiektu eta lizentzien baitakoak dira eta honenbestez, sektorearen fluktuazioetara meneratuak daude; honela, bada, jarduera handikoa izan zen sektorea 2008ko ekitaldian, 1.542 mila euroko diru-sarrerak eraginez eta aldiz, 2009ko ekitaldian sortu zituen diru-sarrerak 745 mila eurokoak izan ziren.
 - Tasa eta bestelako sarreraren kontzeptuko diru-sarrek % 16 egin dute behera 2009an. Beheraldi honen arrazoiak Zerbitzu Orokorretako Tasen kontzeptuan sarrera txikiagoak jaso izana da, 2008ko ekitaldian 3.449 mila eurokoak izatetik 2009an 2.767 mila eurokoak izatera aldatuz; izan ere, 2008an 5 errolda kontabilizatu baziren (2007ko 3. eta 4. hiruhilekoa eta 2008ko 1., 2. eta 3.a) 2009an 4 erroldatik eratorritako diru-sarrerak erregistratu dira (2008ko 4.a eta 2009ko 1., 2. eta 3.a).
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** Transferentzia eta diru-laguntza arruntek eragindako diru-sarrerak % 14 gehitu ziren 2008an eta % 13 murriztu 2009an. Osagairik garrantzitsuena Udalkutxa da eta horren likidazioak onartzen diren ekitaldian erregistratzen ditu Udalak; horregatik, 2008ko likidazio negatiboak 2009an du eragina. Kontzeptu honen izenean hirurtekoan erregistratutako diru-sarrerak 10.412, 10.896 eta 9.784 mila eurokoak izan dira. Likidazio bakoitza zegokion ekitaldian erregistratu izan balitz, kapitulu honetan aitortutako eskubideak % 9 urrituko ziratekeen 2009an.
- **Ondare sarrerak:** % 32 egin zuten gora 2008an eta % 51 murriztu 2009an. 2009ko beheraldia banketxeetan interes baxuen ondorioz gordailuen interes kontzeptuan erregistratutako gastuek behera egin izanak eragin du.

Funtzionamendu gastuak: % 4 egin dute gora 2008ko ekitaldiarekiko; langile gastuak % 10 murriztu dira, ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak % 13 egin du gora eta transferentzia arruntek eragindako gastua % 5 igo da. Urtearteko bariazioak, % 13 eta % 4koak izan ziren 2008 eta 2009an, hurrenez hurren:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- **Langile gastuak:** % 22 gehitu ziren 2008an eta % 10 murriztu 2009ko ekitaldian. 2009ko beheraldia batik bat Enplegu Tailerra programa berandu hasi izanak eragin du; 2009ko ekitaldian 94 mila euroko gastua eragin du, 2008ko ekitaldian erregistratu ziren 712 mila euroren aldean. Beheraldi hau hein batean 2009ko % 2,4ko ordainsari igoerarekin eta plantilla gehikuntzarekin berdintzen da.
- **Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak:** Ehuneko 17 egin zuten gora 2008an eta ehuneko 13, berriz, 2009an. 2009an gastuaren igoera nagusiki Ibaizabal ibaira egindako isurketen kontzeptuan Confederación Hidrográfica del Norte delakoari ordaindutako kanonaren ondorio da; isurketak 2004tik 2008ra bitarteko urteetan egin ziren eta 189 mila euroren zenbatekoan kontabilizatu; halaber, 2008ko ekitaldiarekiko igoera eragin duten beste gastu batzuk etxerako laguntza zerbitzua, 3. adineko eta zaharren egoitzaren kudeaketa eta elbarri fisiko eta psikikoen zentroaren kudeaketa izan dira, hurrez hurren, 198, 29 eta 22 mila eurokoak hain zuzen ere.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** Gastu hauek % 1 murriztu ziren 2008an eta % 5 gehitu, berriz, 2009an. Aztertutako aldiaren izan diren bariazio garrantzitsuenak Erakunde Autonomoei egindako transferentziei dagozkie; bada, 2008an 4.473 mila euro egitetik, 2009an 4.688 mila eurokoak izatera aldatu ziren.

Aurrezki gordina: Magnitude hau % 17 igo da 2008ko ekitaldian sarrera arruntek gora egin izanaren ondorioz; honela, bada, 2009an % 61eko murrizketa izan du, nagusiki sarrera arrunten murrizketaren ondorioz (% 13), funtzionamendu gastuek izan duten igoera neurrizkoaren aldean (% 4). 2009an eskuratutako aurrezki gordinak sarrera arrunten % 12 egiten du.

Aurrezki garbia eta zorpetzea: Aurrezki garbiak finantza zamaren ordainketari aurre egin ondoren erabilgarri geratzen den aurrezki gordinaren atala islatzen du (interesak eta zorraren amortizazioa) eta Udalak baliabide arrunten bidez inbertsioak finantzatzeko duen gaitasuna erakusten du. Udalak 2008 eta 2009an ez du zorpetzea baliatu beharrik izan eta aurrezki garbi positiboa du. Nolanahi den ere, aintzat hartu behar da 2009ko abenduaren 31n Udalak ez duela Udalkutxaren 2009ko ekitaldiaren behin-betiko likidazioa erregistratu, 2.342 mila eurokoa, itzulketa 2011, 2012 eta 2013an egingo delako.

Kapitalezko eragiketen emaitza: Aztergai izan dugun aldiaren, inbertsioak besterentzeak eta kapitalezko diru-laguntzek eragindako sarrerak gauzatutako inbertsioak baino askoz txikiagoak izan dira; magnitude hori gehitzen joan da urteetan zehar (4.955, 10.223 eta 15.167 mila euro 2007, 2008 eta 2009an, hurrenez hurren) eta horrek eragin du magnitude honek saldo negatiboa izatea. 2009an Zelaieta Parkea eta Harrison Parkea urbanizatzeko eta Udaletxea eta Larrea kiroldetia zaharberritzeko egindako inbertsioak gailentzen dira, hurrenez hurren, 2.501, 1.133, 1.832 eta 1.720 mila eurokoak, hain zuzen ere.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Eragiketa ez finantzarioen emaitza: 2008 eta 2009ko ekitaldietan, hurrenez hurren, 947 eta 8.286 mila euroko saldo negatiboa erakusten du; hori horrela da aurrezki garbia murriztu delako eta inbertsio errealek gora egin dutelako eta ondorioz, Diruzaintza Geldikina baliatu behar izan da hori finantzatzeko.

Diruzaintza geldikina: Magnitude honek % 71 egin du behera aztergai dugun aldian, finantzaketa iturri modura erabili izan delako. Epaitegi honek proposatu dituen 944 mila euroko doiketak eta 2009ko ekitaldiko itunpeko zergetan (Udalkutxan) parte hartzeagatik 2.342 mila euroko likidazio negatiboa aintzat hartuta –udalak kontabilizatu ez duena-, 2009ko ekitaldian Diruzaintza Geldikinaren murrizketa % 93koa da.

Biztanleko ratioak-beste udal batzuekiko alderaketa: Informazio modura, 10.001 eta 20.000 biztanle bitarteko (geruza honetan baitago udala) Bizkaia eta EAEko udalen batez bestekoaren 2007ko ekitaldiari buruzko datuak barne hartu ditugu (eskuragarri dauden azken datuak). Udalaren datuekiko alderaketak egin ahal izateko, gogoan hartu behar dira zerbitzuak ematean dauden aldeak, izan ere, zenbaitetan zerbitzuak zuzenean ematen baitira udal administrazioetik bertatik, eta beste zenbaitetan, erakunde autonomo, merkataritza sozietate publikoen bidez edo zeharka, mankomunitate, partzuergo edo merkataritzako beste sozietate batzuen bidez.

Ondorioa: Udal Administrazioek egiten dituzten inbertsioen balizko finantzaketa iturriak honako hauek dira: ekitaldi bakoitzean sortzeko gai diren aurrezki garbia, diruzaintza geldikinak eta diru-laguntza bidez edo zorpetze berri baten bidez eskura dezaten kanpoko finantzaketa.

Amorebieta-Etxanoko Udalak aztergai izan dugun aldian aurrezki garbi positiboa erakusten du; horrek inbertsio programa apala finantzatzeko bide ematen du (2009ko kapitalezko eragiketen kostu garbiaren % 25a). 2009ko ekitaldiari dagokion likidazio negatibotik eratorritako Udalkutxako murrizketaren eragina ez da 2009ko kontuetan jasotzen eta honenbestez, ratio hori nabarmen jaitsi da; baita, Diruzaintza Geldikina ere, Epaitegi honek proposatu dituen doiketak gauzatu ondoren. Nolanahi dela ere, udalak ez du zorpetzerik.

Aztergai izan dugun aldian, Amorebieta-Etxanoko Udalak inbertsioak honako hauen bitartez finantzatu ditu: % 30ean beste Administrazio Publiko batzuetatik eratorritako diru-laguntzaekin, 6. kapituluko sarrerekin, aurrezki garbiarekin eta gainerakoa, Diruzaintza Geldikinarekin.

Udalak etorkizunean izan dezakeen inbertsio gaitasuna beste Administrazio Publiko batzuetan kanpoko finantzaketa erakartzeko ahaleginak eta zorpetzetik eratorritako baliabideak eskuratzeak baldintzatzen du; izan ere, aurrezki garbia gutxitu baitu, sarrera arruntek behera egin dutelako eta gastu arruntek, berriz, gora.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Udalak 2009rako aurkeztu dituen aurrekontuek ez dute aurrekontuaren oreka xedea betetzen eta horren aurrean, 2009ko abuztuaren 29ko Osokoan 3 urteko iraunaldia izango duen ekonomia-finantza plana gehitu eta onartu dute; plan honek inbertsio bolumena gutxitzea eta gastu arruntari eustea aurreikusten du, epe horren buruan aurrekontu-oreka berreskuratu ahal izateko.

2010eko ekitaldian Udalak onartu duen aurrekontuan, gastuen egoera aurreko ekitaldian kitatutako gastuena baino % 10 txikiagoa da eta sarreraren egoera, berriz, 2009an kitatutako sarrerena baino % 18 handiagoa, 5.799 mila euroko zorpetze berria gauzatu baita (mailegurik gabe, aurrekontua % 4 txikiagoa izango zatekeen). Honela, bada, 2010eko aurrekontuan aurreikusitako aurrezki gordinak eta garbiak % 43ko igoera izan du; hori lortu da 2009an kitatutako eskubideen aldean sarrera arruntei eutsi zaielako eta gastu arruntari % 6 eutsi zaiolako 2009koaren aldean. Kapitalezko eragiketen emaitzak negatiboa izaten jarraitzen du 2010eko aurrekontuan, baina 2009ko aurrekontuen likidaziokoa baino % 12 txikiagoa; inbertsioak finantzatzeko aurrezki garbiaz gain, 2010ean txertatuko den Diruzaintza Geldikina eta zorpetze-bidea baliatzea aurreikusi da.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 UDALA

2009-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE.	KOBR.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.	KITAT.	KOBR.	GABEA	EXEK.
1.- Zerga zuzenak	A.3	5.000	-	5.000	6.199	5.473	726	124
2.- Zeharkako zergak	A.3	1.306	-	1.306	835	744	91	64
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	4.179	-	4.179	4.194	3.780	414	100
4 Transf. eta dirul. arruntak.....	A.4	12.319	-	12.319	11.681	11.342	339	95
5.- Ondare sarrerak.....		450	-	450	334	334	-	74
6.- Inbertsio errealen besterentzea	A.5	3.476	-	3.476	450	450	-	13
7.- Transf. eta kapitalezko diru-lag.....	A.4	1.059	3.304	4.363	3.768	2.541	1.227	86
8.- Finantza aktiboen aldak.....		35	11.261	11.296	12	12	-	(*)34
9.- Finantza pasiboen aldak.....		3.000	-	3.000	-	-	-	-
DIRU-SARRERAK GUZTIRA		30.824	14.565	45.389	27.473	24.676	2.797	(*)81

(*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza Geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUA	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG.	ORDAIN.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.	AITORT.	ORDAINK.	GABE	EXEK.
1.- Langileen gastuak.....	A.6	5.897	(506)	5.391	5.280	5.168	112	98
2.- Ondasun arrunten erosk. eta zerb...		9.730	1.762	11.492	9.630	8.028	1.602	84
3.- Finantza gastuak.....		250	(200)	50	-	-	-	-
4.- Transf. eta dirul. arruntak	A.7	5.604	80	5.684	5.523	5.366	157	97
6.- Inbertsio errealen besterentzea	A.8	9.148	13.429	22.577	15.167	14.262	905	67
7.- Kapitalezko transferentziak.....	A.7	160	-	160	147	127	20	92
8.- Finantza aktiboen aldak.....		35	-	35	5	5	-	14
9.- Finantza pasiboen aldak.....		-	-	-	-	-	-	-
GASTUAK GUZTIRA		30.824	14.565	45.389	35.752	32.956	2.796	79
SARRERAK - GASTUAK					(8.279)			



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKONTU ITXIEN ALDAKETA		Euroak milakotan		
	ERANSK.	HASIER. ZORRA	KOBR./ BALIOG. ORDAIN.	AZKEN ZORRA
Zordunak	A.9	3.899	(133)	1.614
Hartzekodunak		1.946	-	117
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA			(133)	

AURREKONTUAREN EMAITZA		Euroak milakotan
Eskubide kitatuak		27.473
Obligazio aitortuak		35.752
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETA AURREKONTUZKOEN EMAITZA		(8.279)
AURREKO EKITALD. KITATUTAKO AURREKONTU ERAGIKETEN EMAITZA		(133)
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA		(8.412)
Finantziario-desbideraketak		124
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak		8.459
DOITUTAKO AURREKONTU EMAITZA		171

DIRUZAINZAKO GELDIKINA		Euroak milakotan
Diruzaintza Geldikina 09.1.1ean		11.263
Aurrekontuaren emaitza		(8.412)
Huts egindakoen hornidurarako dotaz. aldaketak		(169)
Sarrerren itzulketeng. eta beste hartzekod. bariaz.		1.348
DIRUZAINZAKO GELDIKINA 09.12.31-N		4.030
Diruzaintza		4.032
Aurrekontuko zordunak (A.9)		4.411
Aurrekontuz kanpoko zordunak		304
Aurrekontuko hartzekodunak		(2.913)
Sarrerren itzulketeng. hartzekod.		(61)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak		(502)
Aplikatzeke dauden sarrerak		(27)
Kaudimengabeziatarako hornidurak (A.9)		(1.214)
DIRUZAINZAKO GELDIKINA 09.12.31-N		4.030
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikina		(98)
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GELDIKINA		3.932
09.12.31-N ZORPETZEA		-



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2009-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

Aktiboa	ERANSKINA 09 URTEA	08 URTEA	Pasiboa	ERANSKINA 09 URTEA	08 URTEA
IBILGETUA	117.309	102.484	FUNTS PROPIOAK	121.339	113.748
Erabilera orokorrekoa.....	55.925	48.615	Ondarea	37.238	37.238
Ibilgetu ezmateriala.....	182	179	Atxiki eta lagatako ondarea	(7.590)	(7.590)
Ibilgetu materiala	61.192	53.673	Aurreko ekitaldietako emaitza.....	84.100	77.012
Ibilgetu finantzarioa	10	17	Galerak eta Irabaziak	7.591	7.088
ZORDUNAK	3.492	2.909	HARTZEKODUNAK EPE LABURRERA	3.503	3.634
Indarreko ekitaldiaren aurrek. A.9	2.797	-	Indarreko ekitaldiaren aurrek.	2.796	-
Ekitaldi itxien aurrek..... A.9	1.614	3.899	Ekitaldi itxien aurrek.....	117	1.946
Kaudimengab. zuzkid. A.9	(1.214)	(1.045)	Sarrerren itzulketeng. hartzekod.	61	1.270
Askotariko zordunak.....	8	9	Entitate publiko hartzekodunak	316	316
Entitate publiko zordunak.....	287	46	Fidantzak eta jasotako gord.	86	80
			BEZ eta bestelak. hartzekodunak.....	100	18
			Aplikatzeko dauden sarrerak.....	27	4
FINANTZA-KONTUAK	4.041	11.989			
Aldi bateko finantza inbertsioak	1	-			
Eragiketak exekut. emakidak.....	8	8			
Diruzaintza	4.032	11.981			
AKTIBOA GUZTIRA	124.842	117.382	PASIBOA GUZTIRA	124.842	117.382

2009-KO EKITALDIAREN GALERA-IRABAZIEN KONTUA

Euroak milakotan

GASTUAK	09 URTEA	08 URTEA	DIRU-SARRERAK	09 URTEA	08 URTEA
Langileen gastuak	5.409	5.973	Negozio zifratik zenbateko garbia....	3.432	4.158
Ibilgetuaren amortizazioa.....	553	515	Zerga zuzenak	A.3 6.199	5.693
Kaudimengab. zuzkid. aldak.	169	82	Zeharkako zergak	A.3 835	1.954
Kanpoko zerbitzuak	9.314	8.363	Jasotako transf. eta dirul.	16.662	12.433
Tributuak	194	6	Kudeaketa arrunteko bestel. sarr.....	823	836
Emand. transf. eta dirulag. A.7	5.670	5.328			
USTIAKETA MOZKINA	6.642	4.807			
FINANTZA EMAITZA POSITIBOAK	322	671	EMAITZA FINANTZARIO NEG.	-	-
			AURREKO EKITALDIETAKO GALERAK	133	286
APARTEKO EMAITZA POSITIBOAK	760	1.896			
EKITALDIKO MOZKINA	7.591	7.088			



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2 TOKI ERAKUNDE AUTONOMOAK

2009-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA		Euroak milakotan	
AITORTUTAKO ESKUBIDEAK	KIROLAK	AMETX	
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	240	384	
4.- Transferentzia arruntak	1.384	3.803	
5.- Ondare sarrerak	5	9	
GUZTIRA	1.629	4.196	

2009-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA		Euroak milakotan	
OBLIGAZIO ONARTUAK	KIROLAK	AMETX	
1.- Langileria gastuak	135	1.072	
2.- Ondasun arrunten erosk. eta zerb.	1.083	3.138	
4.- Transferentzia arruntak	370	242	
6.- Inbertsio errealen besterentzea	9	138	
GUZTIRA	1.597	4.590	

AURREKONTU ITXIEN ALDAKETA		Euroak milakotan	
	KIROLAK	AMETX	
ZORDUNAK			
Hasierako zorra.....	-	8	
Azken zorra	-	8	
HARTZEKODUNAK			
Hasierako zorra.....	170	54	
Ordainketak.....	158	51	
Azken zorra	12	3	

AURREKONTUAREN EMAITZA		Euroak milakotan	
	KIROLAK	AMETX	
Eskubide kitatuak	1.629	4.196	
Obligazio aitortuak	(1.597)	(4.590)	
Eskubideen baliogabetzea aurrekontu itxietan	-	-	
Eskubideen baliogabetzea aurrekontu itxietan	-	-	
AURREKONTUAREN EMAITZA	32	(394)	
EMAITZARI DOIKETAK			
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak ...	-	660	
Finantziario-desbideraketak	-	-	
DOITUTAKO AURREKONTU EMAITZA	32	266	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

DIRUZAINZAKO GELDIKINA	Euroak milakotan	
	KIROLAK	AMETX
KOBRAZKEKO DAUDEN ZORDUNAK:		
Diru-sarreretakoa aurrekontuetakoa, arrunta	-	-
Sarrereren aurrekontukoak, itxiak.....	-	8
Aurrekontuetakoak ez diren beste hainbat operazioetakoak -		-
(Kobratzeko zalantzazko saldoak).....	-	(8)
GUZTIRA (A)	-	-
ORDAINTZEKO DAUDEN HARTZEKODUNAK:		
Gastuen aurrekontukoa, arrunta	(3)	(254)
Gastuen aurrekontukoa, itxiak	(12)	(3)
Aurrekontuetakoak ez diren beste hainbat operazioetakoak(62)		(11)
Aplikatzeko dauden sarrerak	(32)	-
GUZTIRA (B)	(58)	(319)
DIRUZAINZAKO FONDO LIKIDOAK (C)	355	585
DIRUZAINZAKO GELDIKINA (D=A-B+C)	297	266
FINANTZAKETA ATXIKIA DUTEN GAST. GELDIKINA (E)	-	-
GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA (D-E)	297	266



EGOERAREN BALANTZEA 2009-KO ABENDUAREN 31-N Euroak milakotan

	KIROLAK	AMETX
IBILGETUA	8.484	1.043
Ibilgetu ezmateriala.....	7	-
Ibilgetu materiala	8.477	1.043
ZORDUNAK	-	1
Aurrekontuzkoak.....	-	8
Kaudimengab. zuzkid.....	-	(7)
FINANTZA-KONTUAK	355	585
Diruzaintza	355	585
AKTIBOA	8.839	1.629
FUNTS PROPIOAK	8.781	1.309
Ondarea.....	57	105
Atxikita dagoen ondarea	6.414	-
Aurreko ekitaldietako emaitzak	(*)2.269	(*)1.460
Galerak eta Irabaziak.....	(*)41	(*)(256)
HARTZEKODUNAK EPE LABURRERA	58	320
Aurrekontuzkoak.....	15	257
Entitate publiko hartzekodunak.....	9	53
Bermeak eta gordailuak	2	10
Aplikatzeko dauden sarrerak.....	32	-
PASIBOA	8.839	1.629

(*) Zenbateko zuzenarekin aurkeztu dira. Balantzeetan ekitaldiaren emaitzak aurreko ekitaldiaren emaitza ere barne hartzen du.

2009-KO EKITALDIAREN GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA Euroak milakotan

	KIROLAK	AMETX
ZOR		
Langileen gastuak.....	148	1.082
Kanpoko zerbitzuak.....	1.070	3.128
Emandako transf. eta dirul. arruntak.....	370	242
GASTUAK	1.588	4.452
HARTZEKO		
Negozio zifratik zenbateko garbia.....	216	351
Emandako transferentzia eta diru-laguntzak	1.384	3.803
Bestel. kudeaketa sarrerak	24	37
Sarrera finantzarioak.....	5	5
DIRU-SARRERAK	1.629	4.196
Emaitza: (Galera)/Mozkina	41	(256)





Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

DAVID LATXAGA UGARTEMENDIA, AMOREBIETA-ETXANOKO UDALEKO ALKATE-UDALBURUAK, EUSKAL HERRIKO KONTUEN EPAITEGIAK UDAL HONETAKO 2009KO FISKALIZAZIOAREN EMAITZEI BURUZ EGINDAKO TXOSTENARI, ONDOKO ALEGAZIOAK AURKEZTEN DIZKIO:

II. IRITZIA

II.1 LEGEZKOTASUNA BETETZEAREN INGURUKO IRITZIA

KONTRATAZIOA

2. *Larrea kiroldegiko 1. fasea eraiki asmo zuen obra kontratua, 2007an 5.695 mila eurotan esleitua (7. zk.dun espedientea), 2009an bien adostasunarekin suntsitu zen, 2.242 mila euroko lanak egin ondoren. Kopuru honetatik 1.064 mila euro obra unitateak beste berri batzuegatik aldatzetik datoz, hauek eta hauen prezioak aldez aurretik bere osotasunean ez zirelarik onartu 2008ko abenduaren 18ko Tokiko Gobernu Batzordeak hala erabaki arte, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Testu Bateratuak (aurrerantzean APKLTB) 101 eta 146. art.etan ezarritakoa ez betez. Ondoren, obrarekin jarraitu zen, espediente bat adjudikatuz (8. zk.dun esped.).*

Alegazioa:

Aipatu atalek, PN letrak erreferentzia moduan dituztenak 2008ko abenduko agirian eta jarduera berri gisa, kitapen agirian, hasiera batean onartutako proiektuan jada jasotako lanei dagozkienak dira eta atal hauek osagarriak dira, gauzak argitzeko edota zuzentzeko, jasota ez daudelako edota gehiago zehaztu behar direlako lanak egoki burutzeko eta/edo kontratistaren eta obra zuzendaritzaren arteko interpretazio desberdinei irtenbide bat emateko. (Aurreko txostena)

1.064.464,95ko zenbatekoa bi erabakitan zatituta dago:

- 1- Ekainaren 18ko 839/2008 zk.dun Alkatetza Dekretua.
- 2.- 2008ko abenduaren 18ko Tokiko Gobernu Batzordea.

Tokiko Gobernu Batzordeak 2008ko abenduaren 18an onartutako atalak jasotzen dituen egiaztagiria 2008ko abenduaren 26ra arte ez da onartzen:

2008ko azaroaren 6ko 13. zk.dun egiaztagiria, abenduaren 26ko 1797/2008 zk.dun Alkatetza Dekretuak onartua.

14. zk.dun egiaztagiria, 2008ko abenduaren 16koa, 2008ko abenduaren 29ko Tokiko Gobernu Batzordeak onartua.

18. zk.dun egiaztagiria, 2009ko martxoaren 12koa, martxoaren 30eko 488/2009 zk.dun Alkatetza Dekretu bidez onartua.



3. *Etzez etxeko laguntza zerbitzua ematea xede zuen espedientea (4. zk.dun espedientea) 2006. urtean esleitzen da luza daitezkeen urte birako eta aurrekontua gehienez ere 308 mila eurokoa izango da. Espedientea gauzatzerakoan, emandako zerbitzuengatik fakturatzen da eta ondorioz, luzapen epean gauzatutako zenbatekoak, 2009. ekitaldian, bikoiztu egiten du gehieneko aurrekontua, eskaintza desitxuraturaz eta kontratua aldatu gabe edota lehiaketa berri bat izapidetu gabe.*

Alegazioa:

Kontratua prezioa orduko kontuan hartuz esleitzen da eta horrela xedatzen da Administrazio Baldintza Partikularren Pleguan, 3. atala, proposamen ekonomikoaren erudian eta zerbitzua esleitzeko erabakian (urtarrilaren 26ko 90/06 Alkatetza Dekretua).

Prezioa horrela adierazten da ia ia ezinezkoa baita urtean zehar zenbat ordu egingo diren aldeztatik jakitea.

Kontratuan ordainduko diren gutxieneko ordu kopuru bat ezartzen da: 16.200 ordu urtean.

Klausula hau jartzen da kontratistari gutxieneko diru-sarrerara batzuk bermatu ahal izateko kontratatu beharreko langileen gastuak ordaintzeko.

Administrazio Baldintza Partikularren Pleguan kontraesan bat dago 3. eta 6. atalen artean. 3. atalean bermatutako gutxieneko prezio bati buruz hitz egiten da eta 6an gehieneko prezio bati buruz hitz egiten da. Paragrafo bat eta bestea lotzen badira, ikus daiteke 19x16.200 egiten bada, 307.800 ateratzen dela, hau da, prezioa orduko bider bermatuta dauden gutxieneko orduak. Horrenbestez, bermatutako gutxienekoa aipatzen duela ondorioztatu daiteke.

Beraz, 6. paragrafoa idazterakoan akats bat izan da.

Baldintzen Pleguko 3. atalean, azken paragrafoan, gastua urtero onartutako aurrekontu aurreikuspenek mugatuko dutela zehazten da. Hau da, ezin kasutan ezingo da gastatu aurrekontuan dagoena baino gehiago.

Kontratuak ondorioz, muga bi ditu, bata prezioa orduko da eta bestea urteko aurrekontua.

Zerbitzu honetarako aurrekontua onartzearekin, aurrekontuaren muga kontratuan aipatzen denez, ulertzen da dagokion organoak onartu duela.

Ezin kasutan ez da gastatu zerbitzurako urtero aurrekontuan ezarritakoa baino gehiago.

Urtero KPIrekin prezioa eguneratu da eta 2006tik 2009ra aurrekontuan zerbitzu honetarako atalak onartu izan dira urtero.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Kontratua indarrean egon den urteetako prezioak:

2006. urtea: 18,95 euro.

2007. urtea: 19,423 euro.

2008. urtea: 20,239 euro.

2009. urtea: 24,52 euro.

Kontuan izan beharra dago 2009. urtean martxoaren 11ko 367/09 zk.dun Alkatetza Dekretu bidez onartutako prezioa 24,52 euro-koa dela, EUDELen proposamena onartuz, 2008ko abenduaren emandako irizpenari jarraituz.

Ondorioz, legezotasuna bete dela ulertzen da finkatutako prezio baten adjudikatu baita (18,95 euro orduko, urtero KPIrekin eguneratua 2009. urtean salbu), burutu beharreko ordu kopurua zerbitzurako urtero aurrekontuetan onartzen zenera mugatuz.

4. Zaborrak bildu eta kaleak garbitzeko zerbitzuaren kudaketa (6. zk.dun espediente), 2000. urtean esleitu zen 770 mila eurotan, baita beste bi kontratu ere, hirugarren adinekoren zentroa eta nagusien etxea kudeatzea eta gutxitu psikiko eta fisikoen zentroa kudeatzea xede zutenak. Biak 2005ean esleitu ziren eta 2008an amaitu ziren eta ondorioz, adjudikazioa prozesu berrien bidez egin behar izan zen, publizitate eta lehia printzipioak errespetatuz. Zerbitzu hauen kostua 2009an 1.474 (ikus A 11), 309 eta 366 mila eurokoa izan zen, hurrenez hurren. Kontratu guzti hauek 2009 eta 2010ean esleitu ziren.

Alegazioa:

2.008 eta 2.009. urteetan udalerrian hirigintza hazkunde garrantzitsu bat izan zen eta sektore eta exekuzio unitate berrien urbanizaio lanei harrera egin arte itzarotea erabaki zen, plegu berrietan sartzeko. Bestalde, une horretan teknikari eskasia izan zen eta ezarritako prozedurak erabiliz bete behar izan zen. Zerbitzua ematen jarraitu da eta, ondorioz, baita ordaintzen ere. Edozein kasutan, zuzendu da eta adjudikazio berri bat burutu da Euskal Herriko Kontuen Epaitegiak ikuskaritza lanak burutu baino lehen, txostenean jasotzen den bezala.

Hirugarren adinekoren zentroa eta nagusien etxea kudeatzeko eta gutxitu psikiko eta fisikoen zentroa kudeatzeko kontratuei dagokienean, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguan, 2. atalean (jarraian datorrena), 2009ko abuztuaren 31ra arte luzatzeko aukera aurreikusten da.



“2. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratu hau BI (2) URTEZ indarrean izango da, bi aldeek administrazio kontratua sinatzen dutenetik zenbatzen hasita. Urtero luzatzeko aukera izango da bi aldeak ados egonez gero baina gehienez bi urtetan luzatu ahal izango da. Horretarako alde aurretik kontratistak idatzizko eskari bat igorri beharko dio Administrazioari gutxienez epemuga baino hiru hilabete lehenago eta dagokion kontratazio organoak berariazko ebazpena eman beharko du.”

Bigarren luzapenaren erabakia ez dago ezagutzen ez diren arrazoiengatik. Dena dela, 2009ko abenduaren 4an berriro zerbitzu hau esleitu zen, Epaitegiak adierazten duen bezala.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

2009. ekitaldiko Udaleko aurrekontuaren kitapeneko sarreraren 4. kapituluan Udalak itundutako zergetan parte hartzeagatik kitatutako eskubideak, Udalkutxa, daude 9.784 mila euroko zenbatekoarekin, 2009. ekitaldiko azken likidazioaren konturako emakidei eta 2008ko ekitaldiaren likidazio negatiboari dagozkiolarik. Erregistratu gabe aurkitzen da Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseiluaren kitapen negatiboa (2010eko otsailaren 19a). Diru kopuru hori hileroko itzuliko da 2011ko urtarriletik aurrera eta 2013ko abendura arte, Udalkutxaren konturako dagozkion emakidekin berdinkatuz.

- 1. Udalak bere jabetzapeko ondasun eta eskubideen inbentario bat badu ere, Udaleko osoko bilkurak 2009ko abuztuaren 29an onartua, egin zenean erabilitako irizpideak zehazterik ez da izan, nahiz eta urteen joan etorrian aldaketak izan dituen. Gainera, Udalak balantzean 25.676 mila euroko balioa duten ondasunei amortizaziorik ez die zuzkitzen. Ondorioz, ezin izan da zehaztu ibilgetuak Udalaren jabetzapeko ondasunen kostua eta hauen balio galtzea behar bezala islatzen duen.*

Alegazioa:

1.- Ondasun eta eskubideen inbentarioan ondasunak baloratzeko irizpideak, inbentarioko Oroitidazki Teknikoan jasotzen dira (16-23. orrialdeak). Inbentarioa COINPASA enpresak egin zuen eta Udaleko osoko bilkurak onartu zuen 2000. urtean.

2004ko abenduaren 31 baino lehenagoko ibilgetuko ondasun batzuk amortizaziorik zuzkituta ez badute ere, aktibo amortizagarriak diren ondasun guztiek, ibilgetuan 2005etik aurrera sartu badira (urte hau ere barne), urtero dagokion amortizazioa dute.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2. Hona hemen 2009ko abenduaren 31an Amorebieta-Etxanoko Udalaren eta honen erakunde autonomoen gastu orokorretarako Diruzaintza Geldikinak, data horretan itxitako Egoera Balantzeak eta Fondo Propioak eragiten dituzten doiketak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	AURREKONTUKOA		_ONDAREKOA_	
	DIRUZAINZA GELDIKINA	AKTIBOA	PASIBOA	FUNTS PROPIOAK
UDALA				
09.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko eskubideak				
A.3 Ur, zabor eta saneamendu tasak, 2009ko 4. hiruhil.....	592	592	-	592
A.4 Toki Inberts. Estatuko Fondotik jasotako diru-lag. erag. sarr.	112	112	-	112
Asoziat. finantzak. desbider. positiboa	(87)			
Udalkutxaren likidazioa, 2009ko ekita.....	-	-	2.342	(2.342)
A.5 Hirigintzako aprobetxamendua.....	162	162	-	162
Musika eskola finantzatzeko diru-lag.....	65	65	-	65
09.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko obligazioak				
2. kapituluko gastuak, zorpetu eta erregistratu gabeak	(307)	-	307	(307)
A.8 6. kapituluko gastuak, zorpetu eta erregistratu gabeak	(1.481)	1.481	1.481	-
UDALA GUZTIRA	(944)	2.412	4.130	(1.718)
KULTUR ZERBITZUAK ETA AMETX EUSKARA E.A.				
09.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko eskubideak				
EJ diru-lag. 2008-09 ikasturt. musika eskolei	157	157	-	157
09.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko obligazioak				
2. kapituluko gastuak, zorpetu eta erregistratu gabeak	(14)	-	14	(14)
AMETX E.A. GUZTIRA	143	157	14	143

A.3 ZERGA, TASAK ETA BESTELAKO DIRU-SARRERAK

“2009ko abenduaren 31an, Udalak 2009ko azken hiruhilekoan edateko uraren hornikuntza, zabor bilketa eta saneamenduarengatik kobratzen duen tasaren ondoriozko sarrerak, 592 mila euro, erregistratu gabe ditu”.

A.8 INBERTSIO ERREALAK

Udalak 2009ko ekitaldia ixten denean 1.481 mila euroko betebeharrak erregistratu gabe ditu:

Euroak milakotan	
Udaletxea zaharberritzea	464
Larrea Kiroldegiaren 1. fasea	101
Larrea Kiroldegiaren 2. fasea	836
Larrea Kiroldegiaren kalitate kontrola, obra zuzendaritza..	80
GUZTIRA	1.481

Diru-zaintza geldikinen doiketei egiten zaizkien alegazioak:

a) “A.3 Tasak, ura, zaborra eta saneamendua 4. hir. 2009: 592.000 euro”.

Abenduaren 31an oraindik 2009ko 4. ekitaldiko daturik ez zegoen. Izan ere, irakurketa 2009ko azken egunetan eta 2010eko lehen egunetan egiten da eta kontuan izan behar da hiruhileko horretan 8.151 abonatu alta emanda zeudela. Horregatik, Udalak abenduaren 2009an ez du 4. hiruhilekoan edateko uraren hornikuntza, zabor bilketa eta saneamenduaren erroldatik kobratzen duen tasaren ondoriozko sarrerarik erregistratu gabe. Errolda hori urtarrilaren 11ko 7/2010 Alkatetza Dekretu bidez onartu zen. Dagokion bezala, 2010eko urtarrilean kontabilizatu zen (aipatu dekretuaren kopia eransten da). (14)

Toki Erakundeetako eta hauen erakunde autonomoetako kontabilitate publikoko plan nagusia onartzen duen abenduaren 15eko 235/2004 Foru Dekretuak, 2007ko abenduaren 18ko 255/2007 Foru Dekretuak aldatua, lehenengo atalean, kontabilitate publikoko printzipioak jasotzen ditu. **Sortzapen printzipioari** dagokionez, ondokoa jasotzen da:

“Aurrekontua gauzatzetik sortzen diren gastuak eta sarrerak, kasu bakoitzean ezarritako prozedurarekin bat dagozkien ekintza administratiboak ematen direnean egotziko dira. Dena den, ekitaldia ixteko datan behintzat, gastu eta sarrera horiek ekonomi eta ondare emaitzaren kontuan egotzita egon beharko dute, ordezkatzen duten ondasun eta zerbitzu korrante errearen arabera betiere”.

b) “Udalkutxa 2009. Kitapen negatiboa: 2.342.000 euro”.

2009ko itundutako tributuetan Amorebieta-Etxanoko Udalak duen behin betiko parte-hartzea, martxoaren 16ko Udal Harremanen eta Herri Administrazioiko Foru Diputatuaren 1960/2010 Aginduak onartua, 8.172.049 euro-koa da eta kontuan izanik 2009. urtean konturako emakidak 11.053.589 euro izan zirela, Bizkaiko Foru Aldundiari “itzuli” beharreko kopurua 2.341.540 euro-koa da.

Aipatu Foru Agindua 2009ko ekitaldia itxi ostekoa da eta ondorioz, 2009ko Aurrekontuan ezin izan zen kitapen negatiboa erregistratu, jadanik aipatutako **sortzapen printzipioa** dela-eta.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2010eko otsailaren 16an eta Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseiluak 2010eko otsailaren 19an adostutakoaren arabera, aipatu kopurua hileroko itzuliko da 2011ko urtarriletik aurrera 2013ko abendura arte, Udalkutxaren konturako dagozkion emakidekin berdinkatuz.



Zorra ondare kontabilitatean islatuta gelditzen da 2010eko abenduaren 31an, dagokion kontuan (5100), 780.513,33 euroko zorra epe laburrean sektore publikoarekin, itzulketa 2011n egiteko eta (1600) 1.561.026,67 euroko zorra 2012 eta 2013rako.

c) “Musika eskola finantzatzeko diru-laguntzak: 65.000 euro”.

Udalaren kontu batean otsailaren 9an Eusko Jaurlaritzak egindako diru-sarrera bat agertzen da, 64.684,54 euro-koa. Honako kontzeptu honekin agertzen da: “Musika eskolak dituzten Udalei diru-laguntza zuzena”.

Toki Erakundeetako eta hauen erakunde autonomoetako kontabilitate publikoko plan nagusia onartzen duen abenduaren 15eko 235/2004 Foru Dekretuak, 2007ko abenduaren 18ko 255/2007 Foru Dekretuak aldatua, lehenengo atalean, kontabilitate publikoko printzipioak jasotzen ditu. **Sortzapean printzipioari** dagokionez, ondokoa jasotzen da:

“Aurrekontua gauzatzetik sortzen diren gastuak eta sarrerak, kasu bakoitzean ezarritako prozedurarekin bat dagozkien ekintza administratiboak ematen direnean egotziko dira. Dena den, ekitaldia ixteko datan behintzat, gastu eta sarrera horiek ekonomi eta ondare emaitzaren kontuan egotzita egon beharko dute, ordezkatzen duten ondasun eta zerbitzu korrante errearen arabera betiere.

Ondasun eta zerbitzuen korrante erreala argi eta garbi identifikatzerik ez badago, ulertuko da obligazio edo eskubideen hazkundera edo ondare elementuei eragiten dieten balio zuzenketak onartzen direnean gertatu direla gastuak edo sarrerak.”

Sarrera hori aplikatzeke dagoen sarrera bezala kontabilizatu zen 2010eko otsailaren 9an, diru-laguntza horren behin betiko aplikazioa ezagutu arte.

d) “2. kapituluko gastuak, sortu eta erregistratu ez direnak: 307.000 euro”.

Ondoko fakturak biltzen ditu:

- 2009ko isurketen kontrolagatiko tasen kitapena: 44.000 euro.
(2010/04/30eko 60/2010 Alkatetza Dekretuak onartu eta 2010/04/15eko Sarrera Erregistro Orokorra).
- Fra. hiri hondakin solidoak tratatzea 09 abendua : 32.606 euro.
(Fra. data 09/12/31; Sarrera Erregistro Orokorra 10/01/21; martxoaren 25eko osoko bilkurak onartua).
- Fra. San Juango Edateko Ura Tratatze Gunea 09 abendua: 23.640 euro.
(Fra. data 10/01/11; SEO 10/01/15; 2010/3/31ko 358/2010 zk.dun Alkatetza Dekretuak onartua).
- Berdeguneak artatzeko fra. 2009 abendua: 29.325 euro.



(Fra. data 09/12/31; Sarrera Erregistro Orokorra 10/02/17; martxoaren 25eko osoko bilkurak onartua)

- Astepeko Hondakin Uren Araztegia artatzeko fra. 09 azaroa: 81.188 euro.
(Fra. data 10/01/01; SEO 10/01/22; 2010/3/12ko 260/2010 zk.dun Alkatetza Dekretuak onartua).
- Astepeko Hondakin Uren Araztegia artatzeko fra. 09 abendua: 75.691 euro.
(Fra. data 10/01/01; SEO 10/01/22; 2010/3/12ko 261/2010 zk.dun Alkatetza Dekretuak onartua).
- Fra. Kontagailuak irakurtzea 4. hiru (2009): 19.514 euro.
(Fra. data 10/03/01; SEO 10/03/08; 2010/3/31ko 328/2010 zk.dun Alkatetza Dekretuak onartua).

Sortzapen printzipioa kontuan hartuz, gastu hauek ordezkatzeko duten ondasun eta zerbitzu korrante erreala ez da egiaztatuta gelditzen fakturei Udal honetan sarrera erregistroa eman arte eta hau abenduaren 31a igaro ondoren gertatzen da. Aipatu fakturak 2009-12-31 ostean onartu ziren. Guzti honengatik, aipatu gastuak ezin izan ziren 2009ko aurrekontuaren kontura erregistratu.

e) "A.8. 6. kapituluko gastuak, sortu eta erregistratu ez direnak: 1.481.000 euro".

- Udaletxea zaharberritzea: 464.000 euro.

Ondoko obra egiaztagiriaz ari da:

13. egiaztagiria: 332.610,69 euro.

Egiaztatze data 2009/11: Sarreren erregistro orokorra 2010/01/05.

Egiaztaria onartzen duen 2010eko urtarrilaren 14ko Tokiko Gobernu Batzordea.

Ordainketa data: 2010/02/05.

14. egiaztagiria: 131.685,74 euro.

Egiaztatze data 2009/12/31: Sarreren erregistro orokorra 2010/01/15.

Egiaztaria onartzen duen otsailaren 3ko 85/2010 Alkatetza Dekretua.

Ordainketa data: 2010/03/05.

Sortzapen printzipioa kontuan hartuz, gastu hauek ordezkatzeko duten ondasun eta zerbitzu korrante erreala ez da egiaztatuta gelditzen egiaztagiriei Udal honetan sarrera erregistroa eman arte eta hau abenduaren 31a igaro ondoren gertatzen da. Aipatu egiaztagiriak 2009-12-31 ostean onartu ziren. Guzti honengatik, aipatu gastuak ezin izan ziren 2009ko ekitaldiaren kontura erregistratu.

Gastu hauek Arlo Publikoko Kontratuen Legeak ezarritako epean ordaindu ziren.



- Larrea kiroldegiko 1. Fasea: 101.000 euro.

Lehenengo egiaztagirari buruz ari da: 100.628,94 euro.

Egiaztagiriaren data: 2009/12/31 Sarrerren erregistro orokorra 2010/02/12.

Egiaztagiria onartzen duen martxoaren 15eko 270/2010 Alkatetza Dekretua.

Ordainketa data: 2010/04/08.

Sortzapen printzipioa kontuan hartuz, gastu hauek ordezkatzeko duten ondasun eta zerbitzu korrante erreala ez da egiaztatuta gelditzen obra egiaztagirari Udal honetan sarrera erregistroa eman arte eta hau abenduaren 31a igaro ondoren gertatzen da. Aipatu egiaztagiria 2009-12-31 ostean onartu zen. Guzti honengatik, aipatu gastua ezin izan zen 2009ko ekitaldiaren kontura erregistratu.

Era berean, gastu hau Arlo Publikoko Kontratuen Legeak ezarritako epean ordaindu zen.

- Larrea kiroldegiko 2. Fasea: 836.000 euro.

9. egiaztagiria: 404.052,16 euro.

Egiaztatze data 2009/11: Sarrerren erregistro orokorra 2010/01/15.

Egiaztagiria onartzen duen 2010eko urtarrilaren 21eko Tokiko Gobernu Batzordea.

Ordainketa data: 2010/03/05.

10. egiaztagiria: 199.485,63 euro.

Egiaztatze data 2009/12/31: Sarrerren erregistro orokorra 2010/02/12.

Egiaztagiria onartzen duen otsailaren 26ko 204/2010 Alkatetza Dekretua.

Ordainketa data: 2010/03/25.

Sortzapen printzipioa kontuan hartuz, gastu hauek ordezkatzeko duten ondasun eta zerbitzu korrante erreala ez da egiaztatuta gelditzen obra egiaztagiriari Udal honetan sarrera erregistroa eman arte eta hau abenduaren 31a igaro ondoren gertatzen da. Aipatu egiaztagiriak 2009-12-31 ostean onartu ziren. Guzti honengatik, aipatu gastuak ezin izan ziren 2009ko ekitaldiaren kontura erregistratu.

Gastu hauek Arlo Publikoko Kontratuen Legeak ezarritako epean ordaindu ziren.

- Larrea Kiroldegiko Obra Zuzendaritza (1. fasea): 80.000 euro.

Obra Zuzendaritzaren lehenengo fakturari buruz ari da. Zenbatekoa: 80.040 euro.

Fakturaren data: 2009/12/16.

Sarrerren erregistro orokorra 2009/12/21.

Faktura onartzen duen otsailaren 22ko 177/2010 zk.dun Alkatetza Dekretua.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Aurreko alegazioetan jadanik aipatutako **sortzapen printzipioa** kontuan izanik, aipatu faktura 2009-12-31 ostean onartu zen eta ondorioz, ezin izan zen 2009ko aurrekontuaren kontura erregistratu.

AMETX Kultura eta Euskera Zerbitzuetarako adierazitakoaren inguruko alegazioa:

Ametx erakunde autonomoak 156.548,89 euro-ko diru-laguntza jaso zuen 2010/03/04ko dataz Musika Ikastegiko 2008-2009 ikasturtea finantzatzeko.

Musika-irakaskuntza subentzionatzeko diru-laguntza 2009. urtean eskatu zitzaion Eusko Jaurlaritzari, baina ez zen emakidaren berririk izan 2010eko otsailaren 11ra arte, orduan argitaratu baitzen ebazpena EHAAn.

Aipatu sortzapen printzipioa dela-eta, sarrera hau ez zen 2009an erregistratu.

III BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- *Kontabilitateko erregistroari dagokionez, ondoko akatsak aurkitu dira:*

- *Udalak 2009an langileriako gehieneko gastu bezala, Enplegu Institutu Nazionalari egindako 46 mila euroko itzulera erregistratu du. Itzulera hau 2008ko lan programengatik jasotako gehiegizko diru-laguntzengatik egiten da. Honen izaera kontuan hartzen badugu, sarreraren 4. kapitulua urrituz erregistratu beharko litzateke.*

Alegazioa:

Normalean itxitako aurrekontuetan oker jasotako diru-sarrerak behar bezala kontabilizatzen dira, sarreretan dagokion atala urrituz. Kasu honetan bakarrik izandako akatsa da hau.

- *Udalak Altxortegiko Egoera-Balantze atalean 2009ko abenduaren 31an 2.000 mila euro jasota ditu altxortegiko soberakin bezala, epe laburreko ezarpenean jarriak eta diru hau aldi baterako finantza inbertsio izeneko atalean erregistratuta egon beharko litzateke.*

Alegazioa:

Altxortegiko atalean jasotzen dira, epe finkorako ezarpen bi baitira, bakoitza 1.000.000 eurokoa, likidezia osoa dutenak, aldez aurretik balio gabetuz gero, ez baitute inolako zigorrik.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.2 SARRERA FISKALAK

- *“2009an zordun bati onartutako zatikatze espediente batean, honen zatikatutako tributu zorra 54 mila eurokoa izanik denetara, bermea ematetik ez zaio libratu baina bermea ematea ere ez zaio eskatu, Kudeaketa, diru-bilketa eta ikuskaritzako udal ordenantzaren 12.7 art.an ezarritakoa gainditu arren.”*

Alegazioa

Adierazi beharra dago zatikatze hori eman baino lehen, eskaria egin zuen enpresarekin hainbat bilera egin zirela eta beraietan ikusi ahal izan zen enpresaren egoera ekonomikoa benetan zaila zela eta ezarritako epeetan ordaintzeko asmoa bazutela baina bermea eskatu izanez gero, enpresa kinka larrian jarriko zatekeen ordaindu ahal izateko ondasun edota eskubide nahiko ez izateagatik. Hori horrela zela argi gelditzen da enpresa 2010eko maiatzaren 3an hartzekodunen konkurtso egoeran baitzegoen.

Ez zen erabaki arbitrario bat izan, ezpada enpresaren egoera ekonomikoa aztertu ondoren hartutako erabakia, bermea ematetik libre uzteko baldintzak betetzen zirelarik. Dena dela, egia da bermea ematetik libre uzte hori agiri batean jasota egon beharko lukeela, horretarako baldintza guztiak betetzen baitzuten.

III.3 LANGILERIA

- *Udalak ez ditu Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu alkatearen eta zinegotzi baten ordainsari eta erabateko dedikazioari dagozkion osoko bilkuraren erabakiak, ezta bertaratzeagatik Udalbatzako kideei dagozkien zenbateko eta kalte-ordainak, Toki Jaurpidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.5 art.an ezarritakoari muzin eginez (aurrerantzean TJOAL).*

Alegazioa:

2010. urtean zuzendu zen, 2010eko urtarrilaren 29ko 19. zk.dun BAO.

- *Udalaren eta Kiroletako Erakunde Publikoaren eta Kultura eta Euskera Zerbitzuetarako Ametx Erakunde Publikoaren 2009ko aurrekontu plantillek ez dituzte jasotzen berariazko osagarriari dagokion kreditu zuzkidurarik, Funtzio Publikoari buruzko Legearen 21. art.ak ezarritakoaren arabera. Eskala eta azpieskala bakoitzak jaso beharreko zenbatekoa denetara bai jasotzen da.*

Alegazioa:

Ordainsari guztiak eskalaka argitaratzen dira eta ondorioz, berariazko osagarriari dagozkionak ere bai.



2004. urtean, LZ argitaratu zenean, lanpostuz lanpostu bakoitzaren berariazko osagarria zen zen argitaratu zen (2004ko abenduaren 1eko 232 zk.dun BAO).

Lanpostu berri bat sortu den bakoitzean, LZ aldatzerakoan, lanpostu horren berariazko osagarria argitaratu da (2005eko apirilaren 21eko 75. zk.dun BAO; 2006ko azaroaren 20ko 221 zk.dun BAO; 2007ko otsailaren 26ko 40 zk.dun BAO; 2008ko ekainaren 3ko 105. zk.dun BAO; 2009ko urtarrilaren 21eko 13. zk.dun BAO; 2009ko abuztuaren 28ko 164 zk.dun BAO; 2009ko azaroaren 11ko 216 zk.dun BAO eta 2010eko urtarrilaren 29ko 19. zk.dun BAO).

- *Ametx Kultura eta Euskera Zerbitzuetarako Erakunde Autonomoak ez du argi uzten zeintzuk izan diren bitarteko funtzionarioak izendatzeko erabilitako lan-poltsak kudeatzeko erabilitako irizpideak.*

Alegazioa:

Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legearen 33. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, bitarteko funtzionario izateko eta aldi baterako lan itunpeko langile izateko hautaketa egitean zehazten diren prozeduren arabera jardungo da, publizitate, berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioak aintzat harturik eta ahalik eta arintasunik handienaz aritzen ahaleginduta. Kasuan kasuko lanpostuak eskatzen dituen titulazioen betekizun orokorrak eta gainerako baldintzak beteko dituzte izangaiek.

Azaldutakoarekin bat etorrira, honela jarduten du Kultura eta Euskara Zerbitzuetarako Ametx erakunde autonomoak:

Telefono bidezko kontaktuari ekiten zaio lehenik eta behin, hautatutako pertsonaren asmoa zein den jakite aldera (kasuan kasuko poltsaren arabera beti ere) eta, horren ostean, baiezko erantzuna izanez gero, kontratazioa gauzatuko da. Ezezkoa ematera, ordea, idatziz jasoarazi beharko da erantzuna. Kontaktuan jartzeko ahalegin bizpahiru egin ondoren, hitz egiterik lortzen ez denetan ere, uko egindakotzat hartuko da eta hala jasoaraziko da.

Kasuren baten agiri idatziaren bidez jasota geratu ez bada, gertaera puntuala izan da. 2010. urtean horrela jardun izan dugu kasu guztietan, hau da, idatziz jasota utzirik.

- *Ametx Kultura eta Euskera Zerbitzuetarako Erakunde Autonomoaren Lanpostuen Zerrendan hiru lanpostu ez dira agertzen eta ez da zehazten zein den dedikazioa, eskakizunak, hornitzeko erabilitako sistema, ezta dagokion berariazko osagarria ere. Horrela, ez da betetzen Funtzio Publikoari buruzko Legearen 15. art.n ezarritakoa.*



Alegazioa

Kultura eta Euskara Zerbitzuetarako Ametx erakunde autonomoa 2005ean sortu zen, 2005eko otsailaren 23ko BAOan azaltzen den bezala.

Erakunde autonomoaren LPZ 2005eko azaroaren 14ko 216 zk.dun BAOn argitaratu zen, Erakundea abian jarri ondoren eta beharrianak ikusitakoan, egoki iritzi zitzaion langile-zerrenda handiagotzeari, honako lanpostuak sortuz:

Administrari laguntzailea.

Liburutegiko eta Artxiboko laguntzailea.

Maila ertaineko euskara teknikaria (Hizkuntza Politikarako sailburuordetzaren irizpideei jarraiki).

Ametx erakunde autonomoaren aurrekontu-plantilan islatu ziren aldaketa horiek, lanpostuok erantsita onartu baitzuen Amorebieta-Etxanoko Udalak 2005eko abenduaren 23an egindako Ezohiko Osoko Bilkuran eta 2006ko urtarrilaren 27ko 19 zk.dun BAOn argitaratu. Bertan islatzen dira, era berean, lanpostuaren izena, taldea, lanpostu mailako osagarria eta esleitutako Hizkuntza Eskakizuna. Kontuan hartuta 2005eko LPZren eta lanpostu berrien sorreraren artean igarotako denbora tarte laburra dela, gauza egintzat eman zen maila bereko gainerako lanpostuen osagarri espezifiko berbera zeukatela lanpostuok.

2006ko abuztuaren 23ko dataz onartu zen 2006ko LEP, eta bertara bildurik azaldu ziren aztergai ditugun lanpostuak. Bertan ezarrita dute hautaketarako sistema, sailkapena, hizkuntza eskakizuna, lanpostuaren izena eta taldea. Hori guztia 2006ko irailaren 19ko 179 zk.dun BAOn argitaratu zen.

- *Udalak 2006an formalizatutako aldi baterako hiru lan-kontratu mantentzen ditu. Kontratuok Enplegu Instituto Nazionalari eskaintzak eskatu ostean eratutako lanpostuetatik datoz. Lanpostuen Zerrendan lanpostu batzuk hutsik daudenez eta 2007ko eta 2008ko Lan Eskaintza Publikoan daudenez, lanpostu horien deialdia ateratzea gomendatzen dugu, hautaketa prozesu baten bidez lanpostuok behin betiko hornitzeko.*

Alegazioa:

2011ko irailaren 9an hutsik dauden hiru lanpostu jabetzan betetzeko deialdiaren oinarriak onartu dira. Horrenbestez, hautaketa prozesuari hasiera eman zaio.

- *Udalak eta Ametx Kultura eta Euskara Zerbitzuetarako Erakunde Autonomoak 2009ko ekitaldian bitarteko funtzionarioak hautatzeko, Enplegu Instituto*



Nazionalari lan eskaintzak eskatu dizkiote eta hautaketa prozesuak burutu dira. Prozesu hauei emandako publizitatea handiagoa izan beharko litzatekeela uste dugu, deialdia prentsan edota aldizkari ofizialetan ere argitaratuz.

Alegazioa:

Udalari dagokionez: Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 10. art.ak bitarteko funtzionarioak hautatzeko prozedura arinak burutu beharko direla adierazten du.

Udal honek normalean, aldi baterako langileak hautatzeko, bitarteko funtzionarioak zein lan kontratupekoak, zabalkunderik haundienetarikoa duen egunkari batean eta Udaleko Iragarki-Oholtzan iragartzen du.

Salbuespenez eta premiatusun arrazoiak tarteko, deialdia arinago egiteko, Enplegu Institutu Nazionalari eskatutako eskaintzen bidez egin zen.

Enplegu Institutu Nazionala langabezian zein lana hobetu nahi duen langile oro inskribatuta egon behar duen erakundea da.

Legeak ez du zehazten zein den jarraitu beharreko publizitate sistema. Beste kasu batzuetan aldiz, egiten du, esaterako planeamendua, aurrekontua, argitaratzeari dagokionez.

Bitarteko lanpostu bati publizitatea emateko ezohiko modua izan zen hau. Berehala hornitu beharra zegoen, sail horretan hainbat langile bajaran baitzeuden.

Ametx Kultura eta Euskera Zerbitzuetarako Erakunde Autonomoari dagokionez, eskaintza erakunde horren web orrian ere argitaratzen da.

- *Kultura eta Euskara Zerbitzuetarako Ametx erakunde autonomoak indarrean eusten die, batetik, iraupen jakineko aldi baterako kontratu bati 2001az geroztik (irakaslea) eta, bestetik, bitarteko lan-kontratu bati 1998tik. Kontuan izanik LPZn bi lanpostu huts daudela eta eurretari bat (irakaslea) 2008ko LEPen ageri dela, lanpostuon deialdia egiteko gomendatzen dugu, hautaketa-prozesu baten ondoren behin betiko bete daitezela.*

Alegazioa:

Udalerrriaren errealitate soziolinguistikoa nabarmen aldatu da. Une jakin batzuetan gorakada handiak eman ziren ikasle-kopuruari dagokionez. Hori gorabehera, azken urteotan argi jaitsi da eskaria eta, hori aintzat hartuta, Euskaltegiko matrikulazioaren eboluzioa ari gara aztertzen gaur egun, langileri gaietan bidezko ziren neurriak hartze aldera.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.4 DIRU-LAGUNTZAK

- *Kultura eta Euskara Zerbitzuetarako Ametx erakunde autonomoak, Kultura eta Hezkuntza arloetan, baterako lehiakortasunean, hurrenez hurren 55 eta 112 mila euroko zenbatekoetan emandako diru-laguntzetan, diru-laguntzok emateko ezarrita dauden irizpideetako batzuk ez dira objektiboak, eskatzaile guztiei diru-laguntza ematen bazaie ere. Gainera, Hezkuntzaren alorrean emandako diru-laguntzei dagokienez, ez da deialdiaren oinarri orokorretan ezarrita dagoen prozedura betetzen, aurkeztutako eskariak ebaluatzen duen kide anitzeko organoaren txostenik ez baitago.*

Alegazioa

Diru-laguntzen Lege Orokorraren 17.3 artikuluan dago ezarrita oinarri arautzaileen gutxieneko edukia. Horien artean, “e) Diru-laguntza emateko irizpide objektiboak eta, beharrezkoa izatera, berorien haztapena, ondoren erabilera egokiaren ebaluaketa egin ahal izateko moduan definiturik”.

Beste alde batetik, Amorebieta-Etxanoko Udalaren Diru-laguntzak eta Kulturako berariazko arauak araupetzen dituen Ordenantzaren 34. artikulua kultura arloan diru-laguntzak emateko balorazio irizpideak eta hauen ponderazioa finkatzen ditu. Honekin, diru-laguntzen emakida ahalik eta objektiboena izateko ahalegina egiten da. Zenbatekoa finkatzeko irizpideak dira, Epaitegiak dioen bezala, diru-laguntza onuradun izatearen baldintza betetzen duten eskatzaile guztiei ematen baitaie.

Hezkuntza sailean emandako diru-laguntzei dagokienez, berriz, aurkeztutako eskari guztiak ebaluatzen dituen txosten teknikoak dago.

- *Kirol Fundazio Publikoa Erakunde Autonomoak kirol entitate batekin pabilioi bat erosteko (100 mila euro) izenpetutako hitzarmenean, ez da zehazten ondasuna diru-laguntza eman zenerako zenbat denboran horretarako erabili behar den eta eskritura publikoan hitzarmenean jasotzen den destino erreserba ere ez da agertzen, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-Laguntzen Lege Orokorrak 31.4 a) art.an eskatutako betekizunak. Era berean, ez dago ondasunaren alde aurreko tasaziorik, aipatu Legearen 30.5 art.an zehazten den bezala.*

Alegazioa:

Amorebietako Txirrindularitza Elkartea 1954an eratu zen. Epea erabilerak mugatuko du eta erakunde honen jarduerak dirauen bitartekoa izango da.

Eskritura publikoan Udalak ez du parte hartu. Udala kirol erakundearekin lotzen duena bien artean izenpetutako hitzarmena da eta hitzarmenak argi eta garbi uzten du ondasuna ezin



izango dela eskualdatu edota beste xede baterako erabili. Horrela eginez gero, diruz lagundutako kopurua itzuli beharko du edota ondasuna udalari itzuli, dagokionean.

III.5 KONTRATAZIOA

- *Administrazio klausula partikularren pleguak*

Hamabi kontraturen pleguetan, 23.345 mila eurotan esleituak (2, 3, 5, 7, 8, 10-16 esped. zk.ak), eskaintzarik ekonomikoenak zigortzen dituzten formula aritmetikoak jasotzen dira.

Alegazioa:

Amorebieta-Etxanoko Udalak 2009ko azarotik aurrera, baloratzeko formula aldatu zuen prezioaren irizpideari dagokionez. Horrela, emandako puntu guztiak banatu egiten dira eta eskaintzarik ekonomikoenak puntu gehiago izango ditu. Horrela, ordutik hona Udal honetan erabilitako formula orokorra ondokoa da:

$$PO = \text{MaxP} * \frac{\text{PBL} - O}{\text{PBL} - \text{MaxB}}$$

Azalpena:

PO= Eskaintzaren puntuak

MaxP=Puntuak gehienez

PBL= Lizitazioaren aurrekontu oinarria

O= Baloratu beharreko eskaintza

MaxB= Eskaintza neurrigabekotzat jotzeko baimendutako gehienezko gutxienekoa (Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokarraren 85. art.).

Era berean, aipatu beharra dago Administrazio Kontratazioko Aholku Kontseiluak (aurrerantzean AKAK) eskaintzarik baxuenari punturik gehien eman beharrean eskaintza ekonomikoen media aritmetikora gehien hurbiltzen den eskaintzari punturik gehien emango liokeen balorazio eredu bat jartzeko aukera onartzen duela. Bi noranzkoetan mediatik aldendu ahala puntuazioa proportzionalki igo edo bajatuko da alderantzizko zentzuan. AKAKk 8/97 txostenean adierazten du maiatzaren 18ko Administrazio Publikoen Kontratuen 13/95 Legearen 87. art.ak (egun Arlo Publikoko Kontratuen Legeko 134. art.) ez duela ezartzen baloratzeko arau zehatzik eta ostera, aipatutakoa bezalako formulak erabiltzeko aukera ematen duela pleguan berariaz jasotzen direnean. AKAKk 27/98 txostenean esaten denaren arabera, lehiaketak prezioa baloratzeko hainbat formula erabiltzeko aukera ematen du eta enkanteak ostera ez.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

24.541 mila eurotan esleitutako hamabost kontraturen pleguek (1-8 zk.dun espedienteak eta 10-16 zk.dunak) esleipen irizpide zehazgabeak dituzte, irizpide objektiboak ez direnak edota eskatzailearen esperientzia eta/edo kaudimenean oinarrituak eta ez eskaintzaren ezaugarri teknikoetan, Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren 15. art.ak eta ondorengoek eta Arlo Publikoko Kontratuaren Legeko 65. artikulua (aurrerantzean APKL) eta ondorengoek zehazten duten bezala.

Alegazioa:

Amorebieta-Etxanoko Udalak, APKL argitaratu zenetik, bertan eskatzen denera egokitu zituen esleipen eta balorazio irizpideak. Horrela, gaur egun, Udal honetan erabiltzen diren irizpideak objektiboak dira eta baloratu daitezkeen kontuei buruzkoak dira, kontratuaren xedari dagozkionak; ezin izaera diskriminatzailearik ez dutenak; irizpideak finkatu ostean, hauek bakarrik izaten dira kontuan, bestelakoak baztertuz; administrazio klausula partikularren pleguetan zein eskaintzaren iragarkian agertzen dira, portzentualki baloratuak eta garrantziaren arabera ordenatuak ordena beherakorrean; ez dira nahasten esleipen irizpideak kaudimen baldintzekin.

Aipatu hamabost espedienteetatik hirutan (denak APKL baino lehenagokoak) eskatzaileen esperientzia baloratzen da baina beste hamahiru espedientetan baloratzen dena kontratuaren xedea gauzatzeko berariaz jarritako bitartekoak dira. Administrazio Kontratazioko Aholku Kontseiluaren 59/04 txostenak ondokoa ulertzen du: "erkidegoko zuzenbidearen eta Espainiako legediaren arabera, kaudimen baldintza bezala eskatutako elementu pertsonal eta materialen kopuru gehien izatearen irizpidea eska daiteke eskaintzak baloratzeko edota esleitzeko irizpide gisa, beti ere pleguetan jasota badaude". Honekin uler daiteke ezarritako bitartekoak, zerbitzua ematerako orduan dagoen kalitatea, eskaintzaren balio teknikoa edota prezioa bezalako esleitzeko irizpideak baloratzeko adierazle objektiboak direla. Administrazio Kontratazioko Aholku Kontseiluaren hainbat txostenetan jasotzen den bezala (56/04, 36/01 eta 37/01), eman beharreko zerbitzuaren kalitatea bermatzeko eskatzaileek aurkeztutako baliabide zehatzen kopurua eta kalitatea, eskaintzaren elementu kualitatibo bat da, bere balio teknikoan eragina duena. Horrenbestez, esleitzeko irizpide gisa erabil daiteke betiere eskaintzen bada eta horrenbestez, burutu beharreko zerbitzuaren barne gelditzen bada.

96 mila eurotan esleitutako zerbitzuen kontratu batean (3. zk.dun espedientea), pleguetan agertzen diren formula edota indizeek (prezioak berrikustean aplikatu daitezkeenak), lanekuaren kostua jasotzen dute, APKLko 79. art. an adierazitakoa ez betez.



Alegazioa:

Salbuespenez pertsonaleko gastuak sartu ziren hainbat arrazoiengatik. Batetik, kontratuaren izaerarengatik. Izan ere, kostuen egituran %80 baino gehiagoko portzentaje bat aipatu gastuei dagokie. Eta bestetik, plegua onartzerako orduan Bizkaian gizarte esku-hartze arloko Hitzarmen Kolektiboa negoziatzen ari zen eta hitzarmen hau zerbitzu honi aplikatukoenez, honek zerbitzuaren benetako kostua nabarmen gehitu dezake eta kontratuaren oreka ekonomikoa hautsi, indarrean sartu eta berehala.

- *Esleipena*

24.559 mila eurotan esleitutako hamalau adjudikaziotan, aurkeztutako eskaintzak baloratzen dituen txosten teknikoak pleguko irizpide eta azpiirizpide bakoitzari ezarritako puntuazioak zehazten ditu baina ez ditu emandako puntuazioak justifikatzen (2. zk.dun esped. eta 4-16).

Alegazioa:

Aipatu txostenetan puntuazioak justifikatzen ez badira ere, eskaintzen balorazioa beti azaldu izan da Kontratazio Mahaian, ponderazioa argudiatzeko zehaztapenak azalduz, esleipen proposamena zehaztu baino lehen. Era berean, bai Mahaiaren egintzetara joan direlako edota horrela eskatu dutelako, aurkeztu diren eskatzaileei beti informazio guztia eman zaie, aurkeztutako eskaintza bakoitzaren ezaugarriak eta abantailak edota desabantailak adieraziz.

Gaur egun zehaztapen guztiekin justifikatzen dira emandako puntuazioak espedientean dauden txosten teknikoetan.

Prozedura negoziatu bidez eta publizitaterik gabe 2009an 232 mila eurotan esleitutako espediente batean (9. zk.dun espediente), ez dira zehaztu pleguetan negoziatu beharrekoak ezta espedientean jaso ere negoziazio horren emaitza esleitzeko unean.

Alegazioa:

Administrazio baldintzen pleguan zehazten da esleitzeko oinarri izango den irizpidea preziorik baxuenarena izango dela. Era berean, txosten teknikoan gonbidatutako enpresek jasotako eskaintzen berri ematen da eta esleipena ikuspuntu ekonomikotik egokiena denaren alde egitea proposatzen da.

1.078 mila eurotan esleitzen diren bi espedientetan (4 eta 6 zk.dun esped.ak) ez dago adjudikatzen zaion enpresak tributu eta gizarte betebeharrak betetzen dituela ziurtatzen duen agiririk, KLEOko 13. art.ak eta ondorengoek xedatzen dutena ez betez.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Alegazioa:

4 eta 6. espedienteetan ez badaude galdu egingo ziren seguruenik. Izan ere egiaztapen horiek beti ematen dira, Amorebieta-Etxanoko Udalak kontratua esleitu baino lehen aurkeztea eskatzen baitu.

11.788 mila eurotan esleitutako zortzi kontratutan, esleipen irizpideen balorazioa ez da egokitzen APKLren 134. art.ak jasotzen duen prozedurara. Hemen esaten denez, formulak aplikatuz zenbatu daitezkeen irizpideen arabera eskaintzak ebaluatuko dira, baldintza hau ematen ez den bestelako irizpideena egin ondoren, aipatutakoa agirietan jasota geldituko delarik (1, 2, 10, 11, 13-16 esped. zk.ak).

Alegazioa:

HKEEK adierazitakoaz gain, APKLko 134. art.ak ondokoa xedatzen du: “Lege hau garatzeko arauak zehaztuko dute alde aurretiko ebaluazioa zein kasutan eta zein baldintzatan publiko egin beharko den eta baita aparteko balorazio hau posible izan dadin zelan aurkeztu beharko diren proposamenak.” APKL 2008ko maiatzaren lehen sartzan indarrean; 817 Errege Dekretua, APKL zati batean garatzen duena eta aipatu alde aurretiko ebaluazio publikoa zein kasutan eta nola egin behar den zehazten duena, 2009ko maiatzaren 8koa da (2009ko ekainaren 15ean sartu zen indarrean). Harrezkero, Amorebieta-Etxanoko Udalak prozedura IV. Kapituluaren adierazitakora zehatz-mehatz egokitzen du. Iritzi baten arabera esleipen irizpideak aplikatzea.

Bi kontratutan, aurreko urteetan esleituak 1.078 mila eurotan, esleipena ez da BAOean argitaratu, APKLTBren 93.2 artikulua xedatutakoaren aurka (4 eta 6. zk.dun esped.ak).

Alegazioa:

Zaborra bildu eta bideak garbitzeko kontratuan (6. zk.dun esped.), egia da gaur egun ez dela espediente horretan adjudikazioa BAOean argitaratu izanaren egiaztagiririk aurkitu. 2.000. urtean esleitutako kontratu bat da eta urte horretan espedientei jarraipen bat egiteko tresna informatiko bat martxan jarri zen. Ondorioz, harrezkero dokumentazioaren gaineko kontrola handiagoa da eta aipatu eskakizuna sistematikoki betetzen da.

3.161 mila eurotan esleitutako kontratu bitan, aldarazpenen ondoriozko lanek esleipen prezioaren %20a gainditzen dute (%25 eta %26), aldarazpen hauek kontratua suntsitzea eskar dezaketelarik (10 eta 14. zk.dun esped.ak).



Alegazioa:

10. zk.dun espedientean, aldaketen ondoriozko lanek hasiera bateko zenbatekoaren %19,13a suposatzen dute eta %6,10a neurtzerakoan izandako aldeei dagokie.

14. zk.dun espedientean, aldaketen ondoriozko lanek hasiera bateko zenbatekoaren %17,49a suposatzen dute eta %9a neurtzerakoan izandako aldeei dagokie.

APKLko 217 aipatu artikulua, egun Ekonomia Iraunkorraren martxoaren 4ko 2/2011 Legeak aldatzen duenak, kasu bi desberdintzen zituen: aldaketak eta neurtzerakoan agertzen diren aldeak. 217.1 art.ak ondokoa adierazten du: obra unitateak gehitu, gutxitu edota ezabatzea edota fabrika mota bat beste batengatik ordezkatu behar denean kontratuan jasota baldin badago azken hau, aldaketok egin beharrekoak dira kontratistarentzat, betiere kontratuaren prezioaren %20 gehitu edo gutxitzen ez badute. Gauza bat da aipatu aldaketok eta beste bat proiektuaren neurketan aurreikusitako unitate eta benetan gauzatutako unitateen arteko aldea, gehiago zein gutxiago, betiere kontratuaren hasierako prezioaren %10 baino gehiagoko gastua ez bada. Gehitze edo gutxitze hauek ez dira Administrazioaren ius variandi baten emaitza, kontratua egikaritzean proiektuan jasotako neurriak ez direla zuzenak argi gelditzen denean, egin beharrekoak dira. Kontzeptuok argi desberdinu beharra dago, prozedurari dagokionez ondorio garrantzitsuak baitituzte (unitateak gehitzea, ezabatzea edota gutxitzea suposatzen duten aldaketek kontratazio organoaren onarpena behar dute; proiektuaren neurketan jasotakoekiko alderatuz unitate gehiago edo gutxiago gauzatzeko ez da beharrezkoa onarpen hori). Era berean, 220.e) artikularekin ere lotura du, 2/2011 Legeak aldatua. Honen arabera, kontratua suntsitu daiteke prezioa %20an aldatzen bada baina hori gehitu, gutxitu, ezabatu edota ordezkatzeko dakarten aldaketentzako izango da eta ez neurtzerakoan agertutako aldeentzat. Horrenbestez, Administrazio honen iritziz, aldaketok ez dute gainditu kontratutaren hasierako prezioaren %20a.

Aipatu beharra dago %20ko muga gainditzeak ez duela esan nahi aldaketa ezin denik egin, ez baita Administrazioaren aldatzeko ahalmenaren muga kuantitatibo bat, ezpada muga bat zeinetik aurrera kontratista aldaketa hori egitera behartuta ez den egongo, arrazoi honengatik kontratua suntsiaraztea eska daitekeelarik baina bi kasuetan ez zen horrelakorik gertatu.

2.660 eurotan esleitutako obra kontratu batean (16. zk.dun espedientea) prestakuntza jarduerengatik kopuru batzuk ordaintzen dira, abalik utzi gabe, APKLko Erregelamendu Orokorren 157. art.an adierazitakoa ez betez.

Alegazioa:

Obraren behin behineko esleipena 2009ko azaroaren 26an erabakitzen da. Zenbatekoa: 2.293.113,26 euro (BEZrik gabe). 2009ko abenduaren 9an adjudikaziodunak 114.655,66



euro-ko berme iraunkor bat eratzen du. Prestakuntza lanengatik ordaindutako zenbatekoa: 53.736,92 euro (BEZrik gabe). 2010eko urtarrilean pilatutako materialengatik kontura ordaintzea erabakitzen da.

409 mila eurotan esleitutako kontratu bitan (9 eta 12. zk.dun esped.ak), epea luzatzea erabaki ez arren, amaitzea aurreikusten zen data baino beranduago egin zaio obrari harrera (APKLko 197. artikulua).

Alegazioa:

a) 9. zk.dun espedientea. 2009ko urrian ugerra agertzen da igerilekuko estalkiaren egitura metalikoan. Igerilekuaren estalkiak obren %75 suposatzen du. Egitura metalikoak duen ugerra kendu gabe ezin daiteke igerilekuaren estalkia gauzatu, konpontzea ezinezkoa izango bailitzateke sarbiderik ez izateagatik. Lanak amaitu ondoren, separataren lanei ekin zitzaien. Espedientean ondokoak daude:

- 2009ko azaroaren 4a: Egitura metalikoaren txostena, Kiroldegiko obra zuzendaritzak sinatua (I. fasea, 2. zatia).

- 2009ko azaroaren 9a : zuinketa akta, zertxak ugertu direla adierazten duena.

- 2010eko urtarrilaren 11 : Kiroldegiko obra zuzendaritzaren txosten teknikoa (I. fasea, 2. zatia). Bertan, dauden arazoak, arrazoiak, erantzukizunak eta irtenbide posibleak adierazten dira.

b) 12. zk.dun esped. Montorrako eskola zaharra birgaitzeko lanen 1. fasea esleitzeko kontratua, 2009ko apirilaren 9an sinatua, hiru (3) hilabeteko egikaritzapen epe bat jartzen da.

Lanak 2009ko apirilaren 27an hasi ziren.

Obrak burutzerakoan eta estalkiaren egitura altxatu ondoren eta hareaharria erabiliz egindako harlangaitz-hormazko itxitura hormen koroatzea libre gelditu ondoren, horma horiek euren arten behar bezala lotuta ez zeudela ikusi zen. Horregatik Obra Zuzendaritzari beharrezkoa iruditu zitzaion harlangaitz-hormazko itxitura horma guztien burualdean uztai bat jartzea, mugimenduak gelditu asmoz eta estalkiaren egurrezko egitura berriaren ainguraketa erraztuz. Uztai hori burutzeko aldamiok jartzea beharrezkoa izan zen, bai perimetroan eta baita eraikinaren barruan ere, baita kanpoko hormak handitzea ere. Obra hasi zenean edota obra burutzeko epeak ezarri zirenean ez zegoen jakiterik lan hau ere egin beharko zenik.

Adierazitakoaz gain eta ekipamenduaren prestazioak hobetu asmoz, bestelakoak ere egitea erabakitzen da, hau da, elektrizitate-hartune berria, luminaria berriak, mini-rack sistema, ahots eta datu lerroak eta aldaketak berogailuaren instalazioan. Arrazoi honengatik,



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

uztailaren 27ko 79/2009 Obra eta Zerbitzuetako Zinegotzi Eskuordearen Dekretu bidez, aurrekontuaren aldarazpena onartzen da, 1. fasea.

Adierazitakoaren ondorioz, orain aztertzen ari garen 1. faseko Birgaitze Proiektuaren lanak 2009ko irailaren 30ean amaitutzat jotzen dira, eraikuntza-enpresak E-09-0219 faktura prestatu ondoren, Proiektuaren 4. egiaztagiriari dagokiona eta urriaren 26ko 1.514/2009 zk.dun Alkatetza Dekretu bidez onartua.

Bestalde, Obra eta Zerbitzuetako Zinegotzi Eskuordearen 127/2009 Dekretu bidez, Eder Construcciones enpresari Montorra auzoko eskola zaharra birgaitzeko proiektuaren lanak (2. fasea) esleitzen zaizkio.

Azkenik, 2009ko azaroaren 30ean, Obra Amaierako Egiaztagiria eta Lanen Behin behineko Harreraren akta aurkezten da.

Kontratu batean, 369 mila eurotan esleituak (2 zk.dun esped.ak), esleitutako zenbatekoak gainditzen dituzten zerbitzuak fakturatzeko dira (% 10), aldaketak izapidetu eta onartu gabe. Beste baten, 1.516 mila eurotan esleituak (6 eta 13. zk.dun espedienteak), ez dira behar bezala justifikatzen aldaketaren arrazoiak.

Alegazioa:

a) 2. zk.dun espedientearen: Udalak adjudikaziodun enpresaren ezohiko zerbitzuak kontratatu zituen garbiketa lanetarako, beste zentro batzuetan zerbitzu hau ematen duen langilea (funtzionarioa) bajan edota oportetan zegoelako.

“Eraikin Publikoen Garbiketa Zerbitzua” kontratatzeko Baldintza Teknikoen Pleguan ondokoa ezartzen da:

“VII. KAP.- EZOHIKO ZERBITZUAK

24. art.- Ezohiko zerbitzuak izango dira Udalak aldi baterako eskatzen dituen garbiketa lanak.

Garbiketa lan hauen xedea ondokoa izango da:

- Zentro edota lokal batzuetan garbiketa lanak egitea eskolaz kanpoko ekintzak, ekintza kultural edota obrak direla-eta.

- Larrialdi kasuetan egin beharrekoak eta/edo Udalak eskatutako beste edozein egoeratan.

25. art.- Zerbitzu hauen aurrekontua egiteko, lizitatuzaileek garbitzaileko prezioa orduko aurkeztu behar dute, gaueko prezioa zein eguneko, makinak, tresnak, garbiketa produktuak etab. barne. Azken prezioa adierazi beharko da, BEZ kanpo.



Jadanik eskatu den prezioa/orduko justifikatuta egon beharko da.”

Hilero fakturak onartzen dira eta egonez gero, hauetan agertzen dira egindako ezohiko zerbitzuak.

b) 6. zk.dun espedienteari dagokionez, 2000ko ekainaren 27ko osoko bilkuran, ondokoa esleitu zen oinarritzko proposamenean: "herriko garbiketa zerbitzua, azoka txikiaren garbiketa, hiri hondakin solidoak jaso eta garraiatzea, estolderia eta saneamendu sarearen garbiketa eta Amorebieta-Etxanoko udalerriko arratoiak hiltzea, desinfektatzea eta intsektuak hiltzea". Zenbatekoa: 128.117.860 pta./urteko. Iraupena: 8 urte. Kontratatzeko modua: lehiaketa eta prozedura irekia (00-1191 esped.).

Kontratua indarrean dagoen bitartean egindako aldaketak, ondokoak izan dira:

Abuztuaren 5eko 1229/2004 zk.dun Alkatetza Dekretu bidez kontratua aldatzea erabaki zen. Zenbatekoa: 124.678,64 euro/urteko (BEZ barne). Herrian izandako aldaketan ondorioz, urbanizazio berriak eta berurbanizatutako gunek (hainbat kale oinezkoentzako bakarrik izatea aurrerantzean, espaloiak aldatzea, etab.) beharrezkoa zen herriko garbiketa zerbitzuaren eremua handitzea (04-1877 esped.).

2004ko ekaineko plana eransten da. Bertan ikus daiteke garbiketa eremu berria. Plano honetan ikus daiteke Udalak hainbat urbanizazio atondu dituela eta horrenbestez, haietan ere zerbitzua eskaini beharra dago. Hainbat kale oinezkoentzako bakarrik dira orain eta espaloiak ere zabaldu dira, oinezkoentzako gunek handituz eta honek makina bidez egiten den garbiketa zerbitzua aldatzea dakar (lehen eskuz egiten zen). Eremu berrian sartzen diren kaleak ondokoak dira: Ixerango kalea, Nafarroa kaleko aparkalekua, San Miguel kaleko aparkalekua, Bideaurrerako bidea eta biribilgunea, Aita Roman Urriaga parkea, Zubiondo parkearen luzapena, oinezkoentzat bakarrik den Sabino Arana kalea eta Urritxerako bidea.

Azaroaren 22ko 2115/2005 zk.dun Alkatetza Dekretu bidez kontratua aldatzea erabaki zen. Zenbatekoa: 33.164,81 euro/urteko (BEZ barne). Ondoko kaleetan hainbat zerbitzu ematea beharrezkoa zen, hain zuzen ere, kaleak garbitzea, estolda-zuloak garbitzea eta baita saneamendu sare orokorra garbitzea: San Isidro Bidea, Aretxalde Bekoa, Aretxalde Goikoa, Andapara eta Ugarte Bidea. Aipatutakoak Udalak duela gutxi hartutakoak dira. 2005eko plana eransten da. Bertan ikus daiteke lehen indarrean zegoen planoarekin alderatuz eremua handitu egin dela. (05-1912 esped.).

2006ko irailaren 12ko Alkatetza Dekretu bidez, kontratua aldatzea erabaki zen, zerbitzu berriak ematea beharrezkoa baitzen: kartelak eta pankartak kentzea, pintadak kentzea, markesinak eta informazio panelak garbitzea eta txikleak kentzea. Zenbatekoa: 94.385,93



euro/urteko. Dekretu hau apirilaren 30eko 825/07 zk.dun Alkateza Dekretu bidez aldatu zen. Akats aritmetiko bat izan zen baina zuzenduz gero, kontratuaren zenbatekoa 87.062,88 euro/urteko da. (06-3784 esped.).

Maiatzaren 15eko 912/07 zk.dun Alkatetza Dekretu bidez kontratua aldatzea erabaki zen. Zenbatekoa: 22.321,92 euro/urteko. Honekin herriaren erdigunean domeka eta jaiegunetan ere garbiketa zerbitzua izatea nahi da. Horrela, garbiketa zerbitzua astean 6 aldiz izan beharrean, astean 7 aldiz izango da udalerriko kale eta plazarik jendetsuenetan. (07-2179 esped.).

Urriaren 24ko 1829/2007 zk.dun Alkatetza Dekretu bidez kontratua aldatzea erabaki zen. Zenbatekoa: 39.708,87 euro/urteko. Udalak bere gain hartutako hainbat urbanizazio berritan garbiketa zerbitzua eskaintzeko egiten da kontratu hau. Kaleak ondokoak dira: Nafarroa bidea, Tantorta espaloia, Ixerango parkea, Ixer kalea, Ogenbarrena, Zubipunte eta Boroa auzoa eta Zelaieta parkea kendu egin behar da, obretan zeudenez ezin baitzen erabili. (07-4542 esped.).

c) 13. zk.dun espedienteari dagokionez, Gudari-Abasolo Apezpiku, espedientean, kontratua aldatzearen inguruan, ondokoak agertzen dira: obra zuzendaritzaren txostena, txosten teknikoa, juridikoa, Artekaritzako txostena eta dekretua eta kontratua.

- *Erosketa txikien analisisia*

Erosketa txiki modura izapidetutako erosketak aztertu ditugu eta ikusi dugu 131 mila euroan gauzatutako hiru erosketa publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez izapidetu behar ziratekeela, bai kopuruagatik, bai data beretan eta hornitzaile berarekin hornigai berdinak edo antzekoak erosi zirelako (ikus A.12).

Alegazioa:

a) Lorilleuxekin dagoen kontratuari dagokionez, lehen Lorilleux enpresa egon zen lekuko lurzorua aztertzeko lanei dagokiena da.

